EUSKAL HERRIKO Natura

6€

96 ZENBAKIA

2016ko AZAROA-ABENDUA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

IZAR GORRIA

BIZKARROIA

BOILUR MAZO

MUKIADAR LUZEA

APO-ZIZA

MAKAL-ZIZA

KALIZA ARRUNTA

ERROTARIA

URRIL-ZIZA

KARRASPINA

JOIKI ARRUNTA

GARDINGA

UGATZ-ZIZA HANDIA

EUSKAL HERRIKO
MEHATXATUTAKO FAUNA

EZAGUTU ITZAZU!

EUSKAL HERRIKO PERRETXIKO ETA ONDDOAK

EUSKAL HERRIKO ONDDOAK

ONDDOAK

MARASMIO JANGARRIA *(Marasmius oreades).*

KANPAITXO AZPILUNA *(Mycena pelianthina).*

KATILU LARANJA *(Auleuria aurantia)*

MAKAL-ZIZA *(Agrocybe aegerita).*

BIZKARROIA *(Armillaria mellea).*

SARE HILTZAILEA *(Cortinarius orellanus).*

EUSKAL HERRIKO NATURA

IRAUNGITZEKO ZORIAN DAUDEN ESPEZIEAK DEFENDATZEKO ELKARTEA

ZURE NATUR ETA ZOOLOGIA ALDIZKARIA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EHAA-1996ko otsailak 7, asteazkena. 3/1996 DEKRETUA, urtarrilaren 9koa, Elkartea herri-onurakoa dela aintzatesten duena.

Bizkaia foru aldundia diputación foral

AURKIBIDEA

EUSKAL HERRIKO NATURA - 96.zk - 2016ko AZAROA-ABENDUA

Marasmio baratxuri 4
Marasmio gurpiltxoa 5
Marasmo jangarria....6
Ugatz-ziza handia....7
Ugatz-ziza arrunta 8
Ardagai erraldoia 9
Marasmio kirastuna 10
Mitratxo laranja 11
Karraspina 12
Karraspina arrunta....13
Kanpaitxo errotaria 14
Mycena galopus 15
Kanpaitxo azpiluna 16
Kanpaitxo arbiusaina 17
Pintxoa kanpaitxoa 18
Kaliza arrunta 19
Aeroboletus gentilis 20
Makal-ziza 21
Izar gorria 22
Bizkarroia....23
Niktali handia 24
Astaputz berunkaria....25
Mukibotoi beltza....26
Astaputz mailokatu 26
Zaku astaputza 27
Mukiadar luzea 28
Boilur mazo....28

Atzapar zimulla 29
Udalerriko zizazuria 29
Gardinga 30
Kaiola gorria 31
Egur orin horia 32
Basoetako klitozibezuria....33
Errotari faltsua 34
Urril-ziza 35
Anis-klitozibe berdea 36
Apo-ziza....36
Sare bikaina....37
Bidetako klitozibe zuria....38
Errotaria....39
Joiki arrunta 40
Kolibia gurinkaria 40

Kolibia hankabiurria 41
Marasmio mordoskatua 41
Haritz-marasmioa 42
Kolibia marroia....43
Collibya peornonata....44
Beldar mazoa 45
Urbeltz mikaduna 46
Urbeltz ugaia 46
Urbeltz galparduna 47
Urbeltz argala 47
Urbeltz gorritzailea....48
Urbeltz zuri beltza....49
Sareokre eztatasuna 49
Sare hiltzailea 50
Cortinarius torvus 50

EUSKAL HERRIKO NATURA

Zuzendaria: Fernando Pedro Pérez.
Erredakzioburua: Iñaki Landaluze.
Kolaboratzaileak: Nerea Urtaran, Miren Alustiza, Oskar Azkona, Fidel Korta. Anaut Paterson, Jon Zubiri, Elena Azkarreta, Xabier Aramburu, Kepa Alustiza.
Argazkilari-taldea: Edurne Urkizu, Aitor Zubizarreta, Xabier Urreta, Izaskun Loidi.
Maketatzailea: Kepa Agirre.
Legezko gordailua: BI-2452-02.
ISSN: 1695-4645 **Aleak:** 2.000

Erredakzioa:
Av. Madariaga, nº. 47-6º C - Esc.1 - 48014 BILBAO.
Tel: (94) 475 28 83. **e-maila**: adeve.2@euskalnet.net

Argitaratzailea:
Iraungitzeko Zorian Dauden Espezieak Defendatzeko Elkartea.

ASMOZ TA JAKITEZ EUSKO IKASKUNTZA

Naturaren Ahotsa Interneten zabaltzen da Euskomedia Fundazioaren bitartez, ADEVE eta EUSKO IKASKUNTZAren arteko hitzarmena dela eta WWW.euskomedia.org/adeve

eusko media fundazioa

HARPIDETZA-ORRIA Urteko kuota: Hamabi ale urtean: 36 euro. TLF.: 94 475 28 83

MARASMIO BARATXURI
(Marasmius alliaceus)

DESKRIBAPENA: marasmio baratxuria arruntena eta ezaugarriena daukagu, txapela ganbil edo plano ganbila du, 2-4 zentimetroko diametroa, zuri-gris kolorekoa eta gehienetan ilunago erdian. Azala lehor eta leuna, eta orrien gardentasunaz ertzak leunki ildaskatuak.
Hanka luze eta estilizatua du, beltza edo marroi-beltza kolorekoa, hasieran zuriz leunki haustua eta, gero leun eta dirdira, 6-12 zentimetro x 1,5-3,5 milimetrokoa, mizelio-sustrai zuriez bakaturik.
Txapelaren pean orri lodi bakanak azaltzen dira, zuri edo zuri-gris kolorekoak, lamelula anitz duela, hankaren ondoan andatu edo muxarratuak.
Mami fino, elastiko, ustelezina, neurri kolorez, goxo eta onddo zapore, baratxuri edo gas usain gogorrekoa, nabariagoa lehortzean.
Espora-jalkin zuri kolorekoa.
HABITATA: ekaina eta azaroaren erdia bitartean oso arrunta, pagadiaren, *Fagus sylvatica*, orbel, lurpeko adar eta oso ustelduriko enbor gainean, salbuespenez harizti eta pagadiaren ordezturiko pinudi batean bildu dira, pagoaren fideltasuna baieztatuz.
JANGARRITASUNA: jangarria baina bere baratxuri usain gogorrak ez dio batere kalitate onik ematen.

MARASMIO GURPILTXOA
(Marasmius rotula)

DESKRIBAPENA: txapelaren diametroa doi-doi ailegatzen da zentimetrora. Ganbila da, erdialdetik sartua, baina jausgailuaren antzeko ildo erradial batzuk ateratzen dira erdiko papilatik. Erabat zuria da, baina batzuetan erdian kolore okrea du. Ertza uhindua eta horztuna. Orriak oso bakanak dira, hasieran zurixkak eta gero okreak, eta hankatik separaturik dagoen zirrindola bati atxikirik daude. Hanka mehea da eta luzea txapelarekiko, zurixka goialdean, dirdiratsua, leuna eta marroi-ilun eta beltzaren tartekoa beste guzia. Espora zuri, bere orrien formak errotarri zaharren oroitzapena baitakarkigu. Antz handia duen beste perretxikoa *Marasmius bulliardi* da, baina hau ez da egur zatietan ateratzen, zuhaitzen hostoen txorten edo nerbioetan baizik, eta gainera, txapela txikiagoa du eta erdialdean papila iluna.
HABITATA: perretxiko arrunt eta txiki hau udaberrian agertzen da eta negura arte irauten du. Hostozabalen basoetan ateratzen da egur zatietan edo erdi lurperaturik eta ustelduta dauden eroritako adarretan.
JANGARRITASUNA: perretxiko jangarria da, baina ez da jaten, oso txikia baita. Mami mehea, mintzaira nolabait, txapelean zurixka eta hankan beltza. Ez zaizkio usaina eta zaporea nabari.

MARASMIUS COHAERENS

DESKRIBAPENA: perretxiko txikia da, txapelak 3-4 zentimetroko diametroa besterik ez du; hasieran kanpai formakoa, gero ganbila; ertza, berriz, ildaskatua. Azala matea, erradialki kizkurtua, kolore arrexka-grisaxkakoa, erdialdea ilunagoa; ertzak, berriz, argiagoak. Orriak bakan samarrak, ia askeak, krema-horixka kolorekoak, eta ertzak ilunagoak. Hanka 6-10 x 0,2-0,4 zentimetrokoa, zilindrikoa, oina estutua, zurruna, gogorra, azala distiratsua, kolore beix-zurbilekoa goiko puntan, eta arrexka-gorrixka iluna behealdean. Mami mehea eta zurixka txapelean, gogorra eta iluna hankan, usainik gabea eta gozoa, oso gustagarria ez bada ere. Espora dakrioideak, leunak, gardenak eta ez amiloideak.
HABITATA: soropildua edo atera ohi da hosto edo usteldutako adar tartean, bai hostozabalez osaturiko basoetan, bai koniferopean, udazken aldean batez ere. Espezie arrunta da gure Herrian.
JANGARRITASUNA: ez da jangarria txikia delako eta hanka zurruna eta gogorra duelako. Marasmius torquescensen antza handia du, bai tamainan, bai txapelaren kolorean, bai habitatean, baina makroskopikoko badituzte aldeak ere, batez ere, azken horrek hanka matea eta lausoduna duelako, eta ez delako distiratsua; mikroskopiotik begiratuta, berriz, erabat ezberdinak dira. M. Coharens, oso erraza da ezagutzen txapelaren koloreagatik eta hanka gogor eta distiratsuagatik.

MARASMIO BARATZURI-TXIKIA
(Marasmius scorodonius)

DESKRIBAPENA: txapel txikia du, diametroa 2,5 zentimetroko diametroa gehienez. Hasieran ganbila, gero laua, baina erdialdean sartu antza. Txapeleko azala leuna eta matea da, batzuetan zimurtu samarra, kolore hori eta okrearen tartekoa. Ertzak zurbilagoak dira, eta apur bat uhindu samarrak. Orri estu, bakan eta andatuak, kolore zuri eta kremaren tartekoa. Hanka mehea, zilindrikoa eta kofatua da, sendoa eta distiratsua, txapelak erdialdean duen kolore berekoa.
Marasmius generoko perretxikoak txikiak dira eskuarki eta txapel mehea dute. Haietako batzuek baratxuri edo aza usaina dute. Marasmio baratxuri txikia hauetakoa da. Usain hori askoz nabarmenagoa da orriak behatz artean igurtziz gero.
Marasmius perforans espezieak usain berdintsua du, eta leku berdinetan ateratzen da orratz-hostoetan itsatsirik, baina txikiagoa da eta txapeleko azala erabat zimurtua du.
HABITATA: normalean udan eta udazkenean ateratzen da multzo txikitan bildurik, euri jasa handien ondoren, koniferoen basoetan, silizezko lurretako orratz-orbeletan edo usteltzen ari diren adar eta egur zatietan. Euskal Herrian ez da arrunta.
JANGARRITASUNA: ez da jangarria, baina jakiak lurrintzeko erabil daiteke. Mami mehe, mintzaira eta zurixka du.

MARASMIO JANGARRIA
(Marasmius oreades)

DESKRIBAPENA: txapelak 5 zentimetrorainoko diametroa du, ezkila formakoa da. Kolore hori-laranja eta okrearen tartekoa. Erdialdetik sakonagoa da kolore hori. Higrofanoa, eguraldi hezean distiratsua. Ertz mehea eta askotan horztuna. Orri krema eta bakanak eta tarteka orriska libre asko. Hanka zilindriko, zurrun eta elastikoa, txapela baino zurbilagoa. Mami mehe, zurixka eta elastikoa. Zapore geza. Usain ahula, edo almendra mingotsena. Espora zuri, leun eta eliptikoak. Oso arrunta da eta jangarri ona, hanka kenduz gero. Susmagarria den Marasmius collinusekin nahas liteke. Hau leku berdinetan ateratzen da, baina hanka bigunagoa du, ez hain sendoa, eta orriak meheagoak eta ez hain bakanak. Fruta usaina du gainera.

HABITATA: udaberrian hasten da eta udazkenaren bukaeran desagertzen. Belar artean ateratzen da, larre, lorategi eta bide ertzetan "Sorgin-korroak" izenez ezagututako zirkuluak osatuz. Perretxiko honek bere inguruko belarra ilundu egiten du

JANGARRITASUNA: perretxiko jangarri hau oso preziatua eta ezaguna da, izen arrunten kopuruan ikus daitekeenez. Marasmius guziek bezala mami mehea dute, baina kontserbarako lehortzea erraza denez, perretxiko zaleek asko preziatzen dute, gero neguan zopak eta saltsak egiteko.

MELANOLEUCA BREVIPES

DESKRIBAPENA: perretxiko ertaina da; txapelak 8-10 zentimetroko diametroa izan dezake, hasieran ganbila da, gero lautua edo, batzuetan erdialdea sartua ere izaten du; ertza, berriz, biribilkatua, ondulatua eta izurtsua. Azal leuna, zetakara eta matea, kolore beix-arrexkakoa, erdialdea ilunagoa, hogrofanoa eta eguraldi lehorrean zurbiltzeko joera duena. Orri hertsiak eta zabalak, hasieran krema kolorekoak, gero okreak edo gris-horixkak eta hankarekiko dekurrenteak. Oso hanka motza, 3-5x0,8-2 zentimetrokoa, oina erraboilduna edo, maiz eszentrikoa; hanka-azala, berriz, luzaran okre kolorekoa zuntzez estalia, hondoa txapelaren kolorekoa eta goiko punta noizean behin gris-more kolorekoa. Espora eliptikoak eta gardenak; apaindura, berriz, garatxoduna eta amiloideak.

HABITATA: udaberrian eta udazkenean erne ohi da zelaietako belar tarte, bide-ertz, lorategi eta parkeetan. Nahiko espezie arrunta da Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: mami trinkoa eta zurixka txapelean, okrea eta zuntzezkoa hankan, perretxiko-usainekoa eta zapore mingotsa eta astringentea.

UGATZ-ZIZA HANDIA
(Melanoleuca grammopodia)

DESKRIBAPENA: *Melanoleuca* generoa Tricholomataceae familiakoa da. Familia honetako espezieen esporak zuriak dira, garatxo amiloidez apaindurik eta beren orriak zurixkak, ez-dekurrenteak eta andatuak dira.
Ugatz-ziza handia da bere generoko handiena. Bere txapelak 20 zentimetrorainoko diametroa du eta marroi-grisaxka da, hasieran ganbila eta gero laua. Ertz biribilkatua du. Txapeleko azala leuna eta distiratsua da eta erdialdea ilunagoa du. Orriak zabalak, hertsiak eta andatuak dira, krema kolorekoak. Hanka lerdena eta zuntzezkoa. Luzetarako zuntzezka ilunagoz ildaskatua. Oinalde erraboilduna. Mami zurixka, hankan zuntzezkoa. Mindutako irin usaina du eta zaporea hasieran geza da eta gero mingotsa. Esporak zuriak eta eliptikoak dira eta garatxo amiloideak dituzte. Zistidioak ikus daitezke. Beste Melanoleuca desberdinak badaude eta mikroskopioz bereiz daitezke, baita hanka eta txapelaren neurri eta kolorearen bidez ere.

HABITATA: Euskal Herrian uda-udazkenean ateratzen da arrunta, bakarrik edo sakabanatuak dauden hostozabalen azpian eta larre eta parkeetan ere bai.

JANGARRITASUNA: nahiz eta zuntzezko hanka kendu, jangarri kaxkarra da.

MELANOLEUCA COGNATA

DESKRIBAPENA: perretxiko ertaina da; txapelak 6-10 zentimetroko diametroa izan dezake, hasieran ganbila da, erdialdea azkenik sartua da; ertza, berriz, barrualdera kurbatua eta leuna. Azal higrofano leuna, distiratsua, kolorekoa arrexka-okre eta arrexka-ilun artekoa, erradialki zuntzexkatsua, eta erdialde ilunagoa. Orri hertsiak, makurrak, meheak, itsatsiak, laranja islak dituen krema-okrexka kolorekoak, zahartu ahala iluntzeko joera badute ere. Hanka 6-10x0,8-1,5 zentimetrokoa, zilindrikoa, oina lodiagoa, hasieran betea, gero leizetsua; azala, berriz, zuntzexkatsua, luzaran matazatsua goiko puntan, kolore okre-horixkakoa, txapelean zurbilagoa.
Espora eliptikoak, garatxodunak eta amiloideak, kolore zurikoak.

HABITATA: udaberrian ateratzen da, baita, batzuetan, uda-udazken aldean ere, bai larreetan, bai konifero-basoetan. Espezie arrunt samarra da Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: mami mehea eta zurixka txapelean, okrea eta zuntzexkatsua hankan; perretxiko-usain atseginа, zapore gozoa baina astringentea.

UGATZ-ZIZA ARRUNTA
(Melanoleuca melanoleuca)

DESKRIBAPENA: neurri ertainekoa da. Txapelak 8 zentimetrorainoko diametroa du. Hasieran txapel ganbila da eta gero laua. Txapeleko azala leuna da eta hezetasunak kolore marroi-beltziska ematen dio, baina lehorra dagoenean zurbil eta distiratsuagoa. Orriak hertsiak, sabelduak eta gutxi gorabehera andatuak. Kolore zurixka eta kremaren tartekoa. Hanka elastikoa, zuntzezkoa eta oinaldean erraboildun antzekoa. Luzetarako zuntzeska marroi-grisez goitik beheraino apaindua. Hauek oinari itxura ilunagoa ematen diote. Hankaren neurria, gutxi gorabehera, txapelaren diametroa adinakoa da. Espora zuriak, garatxo txiki amiloidez apainduak eta eliptikoak. Zistidioak ditu.

Badira hauen artean antz handia duten Melanoleuca batzuk ere. Bereizteko, esporen neurria eta ea zistidioak ikusten diren begiratu behar da mikroskopioz, baina baita hankaren neurria txapelaren diametroarekiko zenbatekoa den, agertzen diren lekua eta txapelaren, orrien eta hankaren kolorea ere.

HABITATA: uda-udazkenean ateratzen da, hostozabalen basoetako ertz eta agerruneetan, eta baita mendiko larreetan ere. Melanoleuca generokoen artean arruntena hau da.

JANGARRITASUNA: espezie jangarria da, baina ez oso ona, bere mami mehe eta gusturik gabekoa dela bide. Hankak ere, zuntzezkoak diren arren, ez dira jaten.

Mami mehea, zurixka txapelean eta okre-beixa hankan. Ia ez da ez usainik, ez zaporerik nabaritzen.

MELANOLEUCA EVENOSA

DESKRIBAPENA: tamaina ertaineko perretxikoa da, txapelak 8-10 zentimetroko diametroa izan dezake, hasieran ganbila da, gero lautua; ertza, berriz, batzuetan jasoa; ertza barru aldera kurbatu samarra ale berrietan eta leuna eta zorrotza helduetan. Azala leuna, matea, kolore zurixka eta krema tartekoa, erdialdea, berriz, okrea. Orri hertsiak, zabalak, zainartekoak ez, zurixka eta krema tartekoak, ertzak, berriz, ondulatuak. Hanka 6-8x0,7-1 zentimetrokoa, zilindrikoa, oina lodiagoa; hanka-azala luzaran zuntzezkoa, goiko puntan matazatsua eta txapelaren kolorekoa. Espora eliptikoak, gardenak, garatxodunak; apaindurak amiloideak.

HABITATA: udaberrian eta udazkenean ateratzen da mendiko larreetan, maiz Calocybe gambosa edo *"udaberriko zizekin"* batera, eta horixe da askok biak nahastearen arrazoia. Espezie arrunta da Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: mamia ez oso lodia txapelean, zuntzezkoa hankan, kolore zurikoa, irin-espermaren usain arinekoa, zaporea, berriz, gozoa baina mingots samarra.

ARDAGAI ERRALDIOA
(Meriplius giganteus)

DESKRIBAPENA: ardagai erraldoi hau erdi arrunta da Euskal Herrian eta metro beteko zabalerako, 60 zentimetrorainoko altuerako, eta 10 kilo baino gehiago duten aleak aurki daitezke. Fruitu-gorputza bata bestearen gainean dauden txapelen multzoa da. Txapel bakoitza erdizirkularra da eta hanka uhindua du. Txapelek azal matea dute, zuntzeskatsu, balusatu eta erradialki zimurtua, herdoil-marroi eta gaztain-marroiaren tarteko kolorea, baina ertza aldean argiagoa da, kolore horixkakoa. Azpialdean hodi motzez osatutako himenioa du. Poroak txikiak eta krema-zuriak dira, eta igurtziz gero belztu egiten dira. Espora zuriak ditu, leun eta eliptikoak.

Grifola frondosa berdintsu antza da, baina grisagoa, eta txapelek espatula forma dute, ez erdizirkularra. Gainera, aireak ez du bere mamia belzten.

HABITATA: udan eta udazkenean ateratzen da hostozabalen enborraren oinaldea edo sustraiak parasitatuz, batez ere pagoetan

JANGARRITASUNA: bere mami larrukararengatik ez da jangarria.

Mamia zuntzezkoa eta larrukara da, zuria baina ebakitzerakoan gorritu egiten da hasieran eta gero belztu. Zapore azido samarra eta usain atsegina.

AMELANOPHYLLUM HAEMASTOPERMUM

DESKRIBAPENA: txapela ez da 4 zentimetroko diametrora heltzen; hasieran kanpai-formakoa da eta azkenean ganbila. Ertza apendizeduna da errezela nagusitik zintzilik dauden hondarrak hartzen baititu. Kutikula haustua edo pikorrezkoa da, gris-okre kolorekoa ale berrietan eta ilundu egiten da zahartuz doazen eran; azkenean, tabako-marroi koloreko bihurtzen da. Orriak hertsiak eta urkilatuak dira, hasieran gorri biziak eta gero arre-gorrixka ilunak. Hanka, 3-6 x 0,2-0,3 zentimetrokoa, txapelaren kolore berekoa da, edo pittin bat margulagoa; bere azala pruinaduna da gortina-itxurako zatiaren goialdean eta ezkataduna bere azpian. Mamia mehea eta hauskorra da, zurixka txapelean eta arre-gorrixka hankan; gozoa da eta usaina txar samarra edo. Esporak zuriak eta ez amiloideak dira, eta formari dagokionez, eliptikoak edo giltzurrun-formaren artekoak.

HABITATA: espezie arraro hau udan eta udazkenean ateratzen da talde txikietan egur usteldu asko dagoen lekuetan, bide-ertzetan gehienbat, hostozabal baso heze eta ilunetan.

JANGARRITASUNA: nahiko arraroa da Euskal Herrian. Lepiotaceae familiako espezie txiki guztien antzera ez da jangarria.

MARASMIO KIRASTUNA
(Micromphale foetidum)

DESKRIBAPENA: bere txapelaren diametroak 1-3 zentimetro ditu. Txapel ganbila hasieran, gero laua, ia mamirik gabekoa, eta azkenik sendo eta elastikoa. Txapeleko azala marroia da eta erdialdean ildaska erradial ilunagoak ditu. Ertza mehea du, uhindua eta biribilkatua. Orriak bakanak eta lodiak dira, txapela baino zurbilagoak. Orriska asko ditu tarteka. Nahiko hanka motza, meheagoa, eta ia erabat beltza. Oinaldean mizelio beltza ikus daiteke. Mami mehe, sendo eta elastikoa, kolore arrekoa. Ur geldiaren antzeko kiratsa dario. Espora zuri, leun eta eliptikoak. Ondoko perretxiko hauek ere antz handia eta usain txarra dute: Micromphale brassicolens, antzeko kolorekoa, pagoetatik eroritako hostoen gainean ateratzen da, eta aza ustelen usain handia du; distiratsua, pinuen orratz-hostoen gainean ateratzen da; Marasmius prasiosmusek ere hanka arre-gorrixka eta distiratsua du, baina hostozabalen hostoen gainean ateratzen da. Azken hiru hauek bara-txuri usain nabaria dute.

HABITATA: perretxiko hau ez da oso arrunta. Taldeka ateratzen da hostozabalen adar hautsietan, batez ere pago adarretan, uda eta udazkeneko hilabeteetan.

JANGARRITASUNA: ez du batere itxura ona eta kiratsa dario gainera. Hau dela eta, ez da harritzekoa jangarria ez izatea.

MITRATXO LARANJA
(Mitrula paludosa)

DESKRIBAPENA: fruitu-gorputza 5 zentimetroko luzera izan dezakeen agapuru edo espatulak osatzen du, txapela eta hanka ongi bereiziak izaten ditu. Txapela edo punta aldea horixka edo laranja da, lodia eta barrutik hutsa, azala zertxobait kizkurtua eta karpoforoaren luzeraren 1/3 edo 2/8rena izan daiteke, zilindrikoa izan daiteke, edo lautua, edo forma irregularrak ere izan ditzake, baina beti lehen aipatutako bi formen barruan. Hanka zilindrikoa da, leuna eta zurixka, ia hialinoa. Oso mami gutxi du, biguna, horixka eta urtsua, ez du zapore eta usain nabarmenik. Himenioa anfigenoa da eta punta aldean edo laranja koloreko txapelean dago. Esporak zilindrikoak dira, leunak, hialinoak, eta ttanttadunak, zenbaitetan erdian trenkada izan dezake.

HABITATA: espezie hau saprofitoa da, enbor azaletan, konoetan, adarretan, hostoetan eta, zenbaitetan, briofito desberdinetan ateratzen da, udaberritik udazkena bitartean eta bakarka edo taldeetan, oso leku hezeetan, zenbaitetan ibai ertzetan eta usteltzen ari diren landareak dauden putzu eta urmaeletako uretan sartua ere bai.

JANGARRITASUNA: espezie honek ez du interes gastronomikorik eta bere kolorea eta neurria kontuan hartzen badira Mitrula gracilisekin nahas daiteke, baina espezie hau oso bitxia da, txikiagoa eta horixka, Alpeen azpiko lurralde menditsuetan ateratzen da.

SASIKARRASPINA
(Mytrophora semilibera)

DESKRIBAPENA: bere txapela txikia da eta hankatik zertxobait banatua dago eta ez erabat itsatsia, 2-4 zentimetro baino handiagoa ez da, konikoa da, luzekako saihets erradialez osatua eta euren artean zeharkako beste saihets edo zain batzuek banatzen dituzte, hauekin albeolo erregular samarrak osatuz, guztiak ere okrea edo arrexka kolorekoak. Hanka luzea, lodia eta barrutik hutsa du, zilindrikoa eta bere goialdea txapelaren azpian kokatua. Azala pikorrezkoa da, batez ere goialdean, eta zurixkaren eta kremaren arteko kolorekoa du.

Bere esporak leunak dira, hialinoak, tantadunak eta eliptikoak.

Mamia mehea eta hauskorra da, usainik gabea eta zapore gozokoa.

HABITATA: udaberriko Astomiceta bat da eta 20 zentimetrorainoko altuera izan dezake. Taldeka agertzen da karraspinen garai berean, hau da, martxoaren erdialdetik maiatzaren erdialdera arte, lorategietan parkeetan eta gehienetan erreketatik hurbil dauden leku hezeetan, sasi artean edo zumar eta lizarren azpian.

JANGARRITASUNA: jangarri ona da, karraspinen antzera, hala ere, Euskal Herrian ez dira preziatuak, baina bai Frantzian.

TXAKUR-ZAKILA
(Mutinus caninus)

DESKRIBAPENA: fruitu gorputzak, gaztea denean arrautza luzearen forma du gaztea denean, 2-3 zentimetroko altuerakoa da eta kolore zurikoa. Azpialdean sustrai txiki edo errizomak ditu zintzilik. Karpoforoa heltzen hasten denean arrautza hori hautsi egiten da mutur batetik eta hanka zurixka, arol eta hauskorra ateratzen da bertatik, 10 zentimetrorainoko luzerakoa, puntadun muturrean bukatua. Parte antzu zurixkatik ongi bereizten den eta kiratsa darion gleba berde oliba ilunez estalirik dago. Zaharragoa denean gleba honek kolore hori-laranja hartzen du. Gleba hori intsektuen bidez desagertzen denean, egitura zelular desberdineko geruza gorri-laranja agertzen da bere ordez. Espora txikiak ditu, leun eta zilindrikoak. Mutinus elegans berdintsua da, baina handiagoa, eta alde gorria ez da hain zehazki mugatua.

HABITATA: txakur-zakila udan eta udazkenean ateratzen da ekai organiko asko dagoen leku hezeetan. Hostozabalen basoetako motzondoen aldameneko hosto eta orbel artean. Lurrean etzanda aurkitzen da gehienetan, zutik egoteko indarrik ez balu bezala, oso hauskorra denez, mugitzean hautsi baitaiteke. Oso arraroa da gainera eta, Galizian azaldu denez, Euskal Herrian ere ager liteke.

JANGARRITASUNA: espezie hau ez da jangarria.

KARRASPINA
(Morchela elata)

DESKRIBAPENA: fruitu-gorputzak 15 zentimetroko altuera izan dezake eta hanka eta txapela ongi bereizia duten fruituek osatzen dute. Txapela konikoa da, ertza hankari lotua du eta punta aldea zorrotza, saihets paralelo eta anastomosatuek osatzen dute, luzetara jarrita daudenak, erlauntz forma hartzen duten gelaxka irregularrak sortzen dira zeharkako hormatxoen bidez anastomosatuta daude eta. Hasieran marroi argia a eta pixkanaka-pixkanaka ilundu egiten da ertzetik hasita eta batez ere saihetsen goiko aldean. Hanka hutsa eta zilindrikoa da, txapelaren antzeko luzera du eta azala zahiaren antzekoa eta kizkurtua, zurixka eta isla okreak ditu. Mamia elastikoa eta gogorra da, zurixka eta ez du usain eta zapore nabarmenik. Himenioa txapeleko gelaxketan dago. Esporak zabaleran elipsoidalak dira, leunak, hialinoak eta ertzen kanpoko aldean ttantta txikiak dituzte.

HABITATA: udaberrian ateratzen da espezie hau, bakarka edo talde txikietan, bereziki materia organiko ugari duten karezko lurrak atsegin ditu eta ez da hain arrunta koniferoen basoetan.

JANGARRITASUNA: espezie honek bere generoko gainerako espezieek duten interes gastronomiko bera du, haiekin nahasten denez, munduko jatetxerik onenetako kartan sartuta baitago.

KARRASPINAKONIKOA
(Morchela conica)

DESKRIBAPENA: itxuraz oso desberdinak dira perretxiko hau eta karraspona arrunta. Karraspina konikoak gehienez 14 zentimetrora ailegatzen bada, karraspina arruntarek 20 cm-ko altuera gainezka dezake. Karraspina konikoak kolore gris eta marroi-grisaskaren tartekoa du, eta albeolo irregulardun saihets bertikal beltzak. Batzuetan albeolo luzeak badira ere, barrendik trenkaturik daude. Hanka kofatua da eta oinalde klabiformea du.
Txapelaren luzera du gutxi gorabehera, eta bere kolorea zurixka da, baina zahartzerakoan arrera jotzen du.
Mamia zurixka da eta bere generoko espezie gehienek bezala, ez du usain edo zapore berezirik.
Beste karraspin batzuekin nahas daiteke.

HABITATA: jangarri ona da eta bere generokideak bezala, udaberrian ateratzen da, baina leku desberdinetan, batez ere zurzuri, makal, haltza eta urkiak aukeratzen baititu, nahiz eta batzuetan koniferoaren basoetan ere atera.

JANGARRITASUNA: perretxiko hau jangarria eta oso preziatuan da.

KARRASPINA ARRUNTA
(Morchella vulgaris)

DESKRIBAPENA: karraspina arruntaren txapela oso aldakorra da, bai forma eta bai kolorearen aldetik, hasieran koniko eta gris iluna bada, azkenik globularra eta krema kolorekoa baita, horixka eta okrea gutxi gorabehera. Aldaketa hauek direla eta, zenbait mikologori espezie desberdinak direla iruditu zaio hain zuzen. . Morchella vulgarisek nahiko hanka aldakorra du, baina gehienetan zilindrikoa da eta oinaldean zapaluneak ditu. Oinalde hau ildokatua izaten da gehienetan saihetsen modura, eta barrendik txapela bezala kofatua. Esporak gardenak eta elipsoidalak dira eta mutur kamuts ttanttadunak dituzte.
Beste *Morchella* jangarriekin ere nahas daiteke.
Morchella generoaren hanka eta txapela albeolodunak dira aberasken gelasken antzera.
Mikroskopio: Murgulek peziza antzeko eskuak daramatzate, iodoak eragina urdintzen, 17 eta 22 mikra arteko diametrokoak, barruan lerroka kokatutako 8 espora dituztela.
Helvella eta *Gyromitra* aurka, esporek dute gantz ttanttarik bere barruan; eliose-forma, kolore gaberik, oso handiak eta horma leuneko esporak; 18-21 x 11-13 mikrakoak, batzuetan muturretan zenbait iraizpen dutela. Parafisoak lodiak, giltzatu eta adartuak.

ESPEZIE KIDEAK: *Morchella* genero honen barruan beste zenbait espezie ezaguna da: M. Conica ziza buru konikoa, iluna eta luzaturiko gelatxoz horniturik aurkezten da; Morchella elata, aurrekoa lez, burua eta hanka okre koloreaz tindaturik, gelatxo luzeak eta oso deigarrikoak diren paraleloki zeharkako trenkadak dituela.
Ibaialdeko komunitateetan agertzen zaigun *Mitrophora semilibera* desberdin dukegu, hanka, burua baina luzeagoa du, ditare antzeko portaera mantenduz, hanka eta mintz artean hutsune bat utziz, himenioa dena.

HABITATA: apiriletik Maiatzera arte aurki daiteke zumar eta lizarren azpian, erreken ondoan batez ere.

JANGARRITASUNA: perretxiko hau jangarria eta oso preziatua da eta sikaturik gorde daiteke eta gero berriro hidrataturik jan.

KANPAITXO ESNEGORRI HANDIA
(Mycena haematopus)

DESKRIBAPENA: Mycena generoko onddoak karpoforo urguri izateagatik bereizten dira, txapelak tipikoki ezkila-formakoak, nahiz eta maiz ganbil edo plano ganbil agertzen, baina inoiz ez inbutu-formakoak, hanka txit urguri eta hauskor, ez kurruskaire,gehienetan hutsak eta andatu edo goranzko orriak dituela, zuri edo gorri kolorekoak, bere espora-jalkinek.
Hanka fino eta zilindrikoa, hutsa, 5-10 zentimetroko luzera eta 2-3 milimetroko diametroa, haustura

txapelaren kolorapen berekoa.
Txapelan muxarratu edo goranzko orriak azaltzen dira, heldu aleetan latexek eragina zuri kolore eta orban gorri kolorez horniturik.
Mami oso fin eta mintzaira, zapore eta usain berezirik gabe.
Txapela eta hankak ebakitzean marroi-gorrixka ilun koloreko latex bat jariotzen dute, ugariagoa fresko aleetan. Espora-jalkin zuri kolorekoa.
HABITATA: iraila erditik azaroaren amaiera bitartean arrunta, pagoaren, *Fagus sylvatica*, ustelduriko adar eta enbor gainean, urriagoa ametza gainean, *Quercus rotundifolia*, eta beste hostogalkorrezko espezie gainean.
JANGARRITASUNA: bere neurriagatik ez dute gastronomiko baliorik.

KANPAITXO ERROTARIA
(Mycena galericulata)

DESKRIBAPENA: txapela txikia du, 6 zentimetroko diametroa izan dezake; hasieran kanpai formakoa, gero nolabait ganbila, erdialdea kasko forman goitua; ertza horztuna, erradialki ondulatua edo kizkurtua, kolore arrexka-okrekoa edo beixa. Orri bakan samarrak, zabalak, itsatsiak, goranzkoak, oinean anastomosatuak, tartekaturiko orri ugari, hasieran zurixkak eta heldutakoan arrosak. Hanka luzea, 5-12 x 0,2-0,4 zentimetrokoa, zilindrikoa, elastikoa, hodi formakoa, gogorra; hanka-azala, berriz, leuna, kolore grisaxka-okre eta gris-arrexka tartekoa; goiko punta zurbilagoa eta oina bilo zurixkaz estalia, eta nolabaiteko puntan jarraitzen duena. Mami mehea, zuria, elastikoa, arbi usain ahula eta irin zaporea, mastekatu eta 5 edo 6 segundotara nabaritzen dena. Espora eliptiko-zilindrikoak, leunak, ttanttadunak, gardenak eta amiloideak.
HABITATA: uda-udazken aldean ernetzen da talde soropilduetan, koniferoetatik edo hostozabaletatik erori-

tako adar eta enbor ustelduetan. Espezie arrunta da Euskal Herrian.
JANGARRITASUNA: jateko orduan ez da preziatua. Perretxiko arrunt hau erraz ezagut genezake, izan ere, txapela ondulatua du, erradialki ildaskatua eta okre-arrexka koloreko; orri zurixka-grisaxkak, gero arrosa bilakatuko direnak, habitata egurrean, eta irin zaporea, berberea.

MYCENA GALOPUS

DESKRIBAPENA: perretxiko txikia da; txapelak 1-2 zentimetroko diametroa izan dezake; hasieran kanpai formakoa da, gero kanpai-ganbila; ertza horztuna izan ohi du. Kutikula higrofonoa, matea, erradialki ildaskatua, kolore aldakorrekoa, zuri-zuritik hasi errauts-grisetik pasa eta beltza arterainokoa, formen edo barietateen arabera. Ohiko kolorea arrea du eta erdialdea ilunagoa. Orriak hertsi samarrak, zabalak, goranzkoak, itsatsiak, zuriska-grisaxkak; ertza zurbilagoa gueilocistidio-a ageri delako. Hanka 3-4 x 0,2-0,4 zentimetrokoa; hauskorra, hodi formakoa, zilindrikoa; hanka-azala leuna, matea, kolore grisaxka-arrexkakoa, goiko punta zurbilagoa eta oina ilunagoa

eta latzagoa; oina hautsiz gero esne zuria eta airearen eraginez aldagaitza dario. Kolore zuriko esnea darion Mycena bakarra dugu, badira esnea darien beste batzuk ere, baina ez kolore zurikoak. Mami mehea, hauskorra eta zuria, zapore gozokoa eta ia usainik gabea.
HABITATA: uda-udazken aldean ateratzen da talde txikietan, bai hostozabal basoetan, bai koniferoetan; azken hauetan maizenik, eroritako adar, hosto edo orratz ustelduen artean.
JANGARRITASUNA: ez da jangarria, txikiegia delako. *Candida* barietatea ere hortxe dugu bere txapel zuri eta guzti; beste barietatea nugra deritzona, kolore beltzekoa. Duen habitata, tamaina, txapelaren forma eta hautsitakoan hankaren oinari darion esne zuri aldagaitza kontuan izanda, erraz ezagut genezakeen perretxikoa da.

MYCENA INCLINATA

DESKRIBAPENA: perretxiko txikia da; txapelak 2-3,5 zentimetroko diametroa izan dezake; hasieran kanpai-konikoa da, gero ganbila; ertza ondulatua du, eta azala orrien eta hortzen gainetik gainezkatua. Azala higrofanoa, leuna, erradialki zuntzexkatsua, gardentasunagatik ildaskatua, gris-arrexka kolorekoa; ertzak, berriz, zurbilxeagoak. Orriak hertsi samarrak, itsatsi erdi dekurrenteak, heldutako aleetan bakanagoak,hasieran zurixka-grisaxkak, gero, heldu ahala arrosa kutsukoak. Hanka luzea, 4-10 x 0,15-0,35 zentimetrokoa, mehea, zilindrikoa, hodi formakoa, maiz kurbatua, goiko puntan zurixka eta arrexka-gorrizta beheko herenean; oina beste espezietako oinei itsatsia eta bilo zuriz estalia. Mami mehea, hauskorra eta zurixka; zapore gozokoa eta usain minekoa, xaboiaren antzekoa. Espora eliptikoak, leunak, gardenak eta amiloideak.
HABITATA: uda-udazken aldean ateratzen da sortaka, eroritako enbor edo adar heze edo usteletan, hostozabal basoetan, eta *"Quercus"*-en azpian maizenik. Ez da oso espezie arrunta Euskal Herrian.
JANGARRITASUNA: ez da jangarria txikia delako. Mycena renati delakoa antzekoa du, baina azken horrek hanka urrehori kolorekoa du, eta ez arrexka-horixka edo arrexka-gorrizta hark bezala, eta txapela arrosa-horizta edo arrosa-arrexka du eta ez grisaxka-arrexka.

KANPAITXO AZPILUNA
(Mycena pelianthina)

DESKRIBAPENA: txapela txikia izan ohi du, edo ertaina, 5 zentimetroko diametrorainokoa. Hasieran kanpai formakoa, gero ganbila, eta azkenik ganbil laua; hertza, berriz, zorrotza eta ildaskatua. Azala leuna, azkenik erradialki zuntzezkatsua, higrofanoa eta kolore beix-zurixkakoa; ertza, eguraldi lehorrean, more antzekoa, eta giro hezean gris-morea. Orri zabalak, horizontalak, itsatsiak edo dekurrente samarrak, kolore morexkakoak; ertza, berriz, purpura-beltza kolorekoa. Hanka 5-7 x 0,3-0,6 zentimetrokoa, zilindrikoa, hodi formakoa; hanka-azala, ostera, leuna, morexka, txapela baino argiagoa, goialdea zuntzexkatsua, eta oinaldea bilo zurixkaz estalia. Mami mehea, elastikoa eta zurixka-grisaxka; zapore gozokoa eta arbiaren edo patata-azalaren usainekoa.

HABITATA: uda-udazkenean atera ohi da hostozabal basoetan, pagadietan batez ere, hildako hostoen tartean.

JANGARRITASUNA: ez da jangarria. Erraz ezagutzen den perretxikoa da, aski dugu txapelaren koloreari begiratzea, edo orrien ertz ilunagoari, edo arbiaren edo patata-azalen usain nabarmenari, edo pagondoetatik eroritako hosto artean duen habitatari. Kolore morea den Mycena purak ere nahiko antza du, txapelaren kolorea eta mamiaren usaina tankerakoak baititu, baina azken perretxiko horrek txapela txikiagoa du, eta orrien ertza, orrien kolore berekoa.

MYCENA OORTIANA

DESKRIBAPENA: txikia da, txapelak 1-2,5 zentimetroko diametroa izan dezake, hasieran kanpai koniko formakoa da, gero kanpai ganbila; ertza, berriz zorrotza eta ildaskatua. Kutikula higrofanoa du, leuna, matea, kolore gris-horixka-arrexkakoa edo oliba-grisekoa, erdialdea ilunagoa, eta ertza zurbilagoa, heldu ahala horitzeko joera badu ere. Orri itsatsiak eta ia dekurrenteak, goranzkoak, hertsi samarrak, hasieran zurixkak eta gero oinean grisak. 4-10 x 0,1-0,3 zentimetroko hanka, luzea, mehea, zilindrikoa, hodi formakoa, zurruna, goiko punta, gozokoa eta usaina, berriz, arbiarena edo, lehortzean iodoarena bereganatzen badu ere. Espora eliptikoak, leunak, ttanttadunak, gardenak eta amiloideak.

HABITATA: uda-udazken aldean atera ohi da talde soropildu handietan, usteltzen ari diren adar hezeen artean; bai konifero-basoetan, bai hostozabalenetan. Gure eskualdean hostozabal-basoetan aurkitzen ditugu maizenik. Espezie arrunta da Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: ez da jangarria txikia delako. Mycena metataren antza handia du, bai neurrian, bai kolorean, bai iodo-usainean; azken honek, ordea, txapela ez du hain oliba kolorekoa, ertza arrosa ukitukoa du, eta orriak, heldutakoan, arrosa samarrak izan ohi ditu.

KANPAITXO ARBIUSAINA
(Mycena pura)

DESKRIBAPENA: perretxiko txikia da; txapelak 4 zentimetroko diametroa izan dezake; hasieran kanpai formakoa, gero ganbila eta azkenik ganbila laua eta oso ondulatua; ertza, berriz, ildaskatua. Azal leuna, matea, higrofanoa, kolore aldakorrekoa, ohiko forman morexka, eta erdialdea ilunagoa; badira beste kolorekoak ere, arrosa, zuria, horia, lehoi kolorekoa, esate baterako; perretxiko honen forma eta barietateen arabera. Orri bakanak, zabalak, altzodunak, zaintsuak oinarrian, itsatsiak edo ia dekurrenteak, kolore zurixkakoak, ale helduetan isla arrosa eta more tartekoak. Hanka hauskorra, 3-7 x 0,3-0,6 zentimetrokoa, zilindrikoa, oina ia erraboilduna, hutsa ale helduetan; hanka-azala, berriz, leuna, zetakara, azkenik luzaran zuntzezkatsua, txapelaren kolorekoa eta oina ilunagoa eta iletsuagoa. Mami mehea, hauskorra, zurixka, zapore mingots samarra eta usaina patata-azalena edo arbiarena.

HABITATA: uda-udazken aldean da talde txikietan, hostozabal eta konifero-basoetan eroritako hosto eta orratz tartean.

JANGARITASUNA: ez da jangarria; azken urteotan toxikotzat jotzen dute, jaten dutenengan sintoma neurologikoak sorrarazten dituelako. Hainbat forma ageri zaizkigu, hala nola, alba zuria, txapel zuria duena; forma luteoa, txapel horia eta hanka morexka dituena, forma purpureoa, txapel zuria eta hanka morea duena, eta, azkenik, *Mycena rosea* handiagoa eta txapel arrosa duena.

KANPAITXO LINGIRDARTSUA HORIXKA
(Mycena epipterygia)

DESKRIBAPENA: *Micena* honek txapela zabalki ezkilaformakoa du, ia laua eta ganbila, baina erdia garbiki zorroztua, neurri txikikoa, ia 1-1,5 zentimetroko diametroa. Txapelaren azala beti zerbait liskatsua, erdian marroi-gorrixka edo marroi-gris kolorekoa eta ertzetan hori kolorekoa, orrien gardentasunaz garbiki ildaskatua. Hanka fino eta hutsa, hauskor, dena berdin, 1-2 mm-zko diametroa, 5-10 zentimetroko luzera, hori bizi kolore ederrez eta txit likatsua, oinarrian lotura ile zuri ugariz duela. Txapelaren pean orri lodi eta oso bakanak agertzen dira, zabalki andatu edo hortz batez zerbait azpiko dekurrenteak, zuri edo zuri-arrosa kolorekoak.

Mami oso fino eta mintzaira, usain berezirik gabe eta gehienetan irin zaporekoa, maiz nabarmentzen ez dena. Esporajalkin zuri kolorekoa.

HABITATA: orbel artean arrunta edo gehienetan goroldio artean, mota guztietako basoetan, nahiz hostogalkorrezkoak, nahiz koniferakoak, urria erditik eta azaroaren amaiera bitartean, berantiarra.

JANGARRITASUNA: bere neurri eta tinkotasunagatik ez du gastronomiko baliorik.

KANPAITXO ARROSA
(Mycena rosea)

DESKRIBAPENA: txapelak 6 zentimetrorainoko diametroa du, hasieran konikoa eta gero ganbila eta laua. Ertz mehea du, gardenki ildaskatua. Txapeleko azala leuna da, batzuetan erradialki kizkurtua, higrofanoa eta matea. Arrosa kolorekoa da, ertzean eta erdialdean zurbilagoa. Orriak zabalak dira, nahiko hertsiak eta andatuak, hasieran zuriak eta gero arrosa antzekoak. Hanka zuzena, luzea, eta zilindrikoa, baina oinaldetik lodiagoa. Hasieran hanka betea edo tubularra da, baina gero kofatua. Kanpotik zuria da, baina isla arrosa du, eta luzetara pittin bat zuntzezkatu samarra. Espora leun, zuri, amiloide eta eliptikoak.

Myacena purak zenbait desberdintasun ditu honekiko: beste kolore bateko txapela, eta hasiera ezkila formakoa eta gero ganbila. Hanka ez da zuria gainera, gris-morea baizik. Mycena roseoviolacea ere antz handikoa da. Espezie honen txapela arrosa ilun eta morearen tartekoa da, kolore berdineko hanka eta orriak zurixkak.
Mikologo askoren ustez *Mycena rosea* hau mycena pura espeziearen forma edo barietatea da.
HABITATA: perretxiko hau udan eta udazkenean ateratzen da kare-lurretan, hostozabalen basoetako orbelaren gainean, pagadietan batez ere.
JANGARRITASUNA: mamia mehea eta zuria da, baina arrosa antzekoa. Arbi usaina du eta ez da jangarria, aluzinagarria ote den susmoa baitago.

PINTXOAKANPAITXOA
(Mycena seynii)

DESKRIBAPENA: dozena erdi bat Mycena bakarrik ateratzen dira aldiko pinaburuen gainean, eta haietako batek besterik ez du orrien ertza beste orri guzia baino ilunagoa. Hau Mycena seynii espeziea da. Perretxiko honen txapelak 4 zentimetroko diametroa du. Hasieran koniko edo ezkila formakoa da, baina gero lautu egiten da, batzuetan gehiago besteetan baino. Marroi-grisaxka da, lila edo arrosaz nahasia. Erdialdea ilunagoa du eta ertza argiagoa eta gardenki ildaskatua. Orriak nahiko hertsiak, goranzkoak eta andatuak. Kolore zurixka-grisaxka dute, lilaz edo arrosaz nahasia. Orriek ertza ilunagoa dute, kolore lila marroikoa. Hanka sendo, tubular eta kurbatua. Oinaldetik mizelio zuriak estaltzen du.
Esporak zuriak, amiloideak eta zilindriko eta elipsoidalak dira.

HABITATA: Euskal Herrian aski arraroa da, bereziki intsinis pinudietako pinaburuetan ateratzen da.
JANGARRITASUNA: mamia mehea da, kolore zurixka, grisaxka eta arrosaduna. Ez zaizkio usaina eta zaporea nabari. Ez da jangarria.

KALIZA ARRUNTA
(Acetabula vulgaris)

DESKRIBAPENA: perretxiko honen fruitu-gorputzak kopa forma du, 6 zentimetrorainoko diametroa eta 4 zentimetro inguruko altuera. Oinaldean saihets formako tolesturak dituen hanka du. Saihets formako tolestura hauek kanpoaldetik hedatzen eta adarkatzen dira, baina ez dira behin ere ertzeraino ailegatzen. Barrenaldetik leuna da, nahiz eta batzuetan hondoan tolesturak ikusi. Barrenalde honen kolorea gedar-arre eta arre-ilunaren tartekoa da eta kanpoaldearen kolore zurbilago edo ia zurixkarekin kontrastean dago. Esporak leunak eta eliptikoak dira eta barrenean ttantta handi bana dute.

HABITATA: jangarria da, baina kaxkarra, eta arriskutsua, azido helbeolikoa baitu. Jateko egosi egin behar da azido hau desagerrarazteko.
JANGARRITASUNA: udaberriaren hasieratik udazkenaren hasiera arte aurki daiteke, koniferoen basoetan gehienetan, estrata eta bide ertzetan batez ere.

KATILU LARANJA
(Aleuria aurantia)

DESKRIBAPENA: katilu laranjak ertz gingildua duen plater edo kazola forma izaten du. Bere neurria 8 zentimetrorainoko diametrokoa da. Askotan talde hertsitan ateratzen da, eta hauen artean estutuz gero, ale bakartiena baino irregularragoa gelditzen da ertza eta bide batez forma ere bai. Barrenaldea leuna da, kolore laranja ederrekoa, eta laranja-gorrixkara aldatzeko joera du. Kanpoaldea lausodun antza da, argiagoa, eta batzuetan nahiko zurixka.
Oharka beheko usain eta zaporea. Batzuetan, bildu ondoren, daramagun ontzitik atera eta esku gainean hartuz gero, *"esporen leherketa"* txikia gertatzen da. Esporen "leherketa" hau lauso baten moduan ikusten da eta eskuaren eta esporen arteko tenperatura desberdintasunak eragiten du. Esporak gardenak, elipsoidalak eta saredunak dira eta mutur arantzatsuak dituzte.

HABITATA: udazkenetik neguaren hasieran arte ateratzen da bai hostozabal eta bai koniferoen basoetako lurrean, lur ibili berrietan batez ere.
Perretxiko polit honi basoetako estrata ireki berrietan agertzea gustatzen zaio. Horrelakoetan ikusgarria da lurra kolore biziko ehunka diskok estalia ikustea, lur biluziarekin kontrastatuz.
JANGARRITASUNA: jangarria da, baina ez oso ona, ez baitu gusturik, eta jateko mami gutxi du gainera.
Mamiak kolore berdintsua du eta oso hauskorra da.

AUREOBOLETUS GENTILIS

DESKRIBAPENA: txapelak 2-6 zentimetroko diametroa izan dezake, hasieran hemisferikoa gero ganbil formakoa eta azkenik laua eta ganbila; ertza enparatua du eta barnera kurbatua, zahartzean kanpora kurbatzeko joera du. Azala erdi banagarria eta likatsua da, batez ere eguraldi hezea denean, arrosa kolorekoa zertxobait grisaxka edo marroia aleen adinaren arabera. Hodiak motzak dira, itsatsiak edo ia dekurrenteak, oso finak eta urre kolorekoak. Poro konposatuak, hasieran oso txikiak, gero zabalduz doaz eta zahartu ahala nahiko handiak dira; hodien kolore berekoak dira eta esne itxurako ttantta batzuk

darizkie hazten ari direnean. Hanka zilindriko-fusiformea da, 3-8x0,5-1,5 zentimetrokoa, urre kolorekoa, biziagoa punta aldean eta oinaldean tonu marroi-arrosak ditu; azala leuna da, baina batzuetan eta bereziki heldua denean baditu kanal mehe batzuk luzeka jarriak.

Esporak fusiformeak dira, kolore horikoak eta bere barnean ttantta batzuk dituzte.

HABITATA: espezie arraro eta eder hau uda-udazkenean atera ohi da pagadi edo hariztietan, bakarka edo 2-4 aleko taldeetan

JANGARRITASUNA: bere mami harroa zuri kolorekoa da baina zertxobait arrosa txapeleko azalaren azpian; fruta-usain antza du eta zaporea azido samarra.

AURICULARIA AURICULA JUDAE

DESKRIBAPENA: fruitu-gorputza hankarik gabeko giza belarri formako txapelak osatzen du. Txapel honen barrenalde edo himenioa, leuna, nerbioduna, kizkurtua eta uhindua da, eta kolore gorri-iluna edo marroi-morea du, eta ertz uhindu eta leuna. Kanpotik berriz, iletsu edo balusatua da, uhindua eta kolore grisa eta oliba-arrearen tartekoa. Ale fresko eta hezeek mami gelatinakara, erdi garden eta arre-gorrixka dute, baina lehor dagoenean, zurrun, hauskor eta gogorra. Zapore geza eta oharkabeko usaina. Espora handi, leun eta zilindrikoak.

HABITATA: perretxiko gelatinara eta erdi garden hau taldeka ateratzen da udan eta udazkenean ihartutako zenbait hostozabalen adar, enbor eta eroritako adarretan, arte eta intsusetan batik bat. Hortik omen datorkio *"Judasen belarri"* izena, ebanjelioek diotenez, Jesusi traizioa egin ondoren, intsusa batetik urkatu baitzuen bere burua.

JANGARRITASNA: jangarria denez, sikaturik gorde daiteke.

Ekialde Urrunean (Txina eta Japonian) arrunt preziatua da. Laborantzako espeziea da hau ere, eta jatetxe txinatarretan sarritan zerbitzatzen dute, gordinik edo entsaladan, "perretxiko beltz" izena emanez. Berez, perretxiko honek ez da zaporetik, baina bere mami gelatinakara dela da, ekialdeko gusturako oso estimatua izaten da.

MAKAL-ZIZA
(Agrocybe aegerita)

DESKRIBAPENA: txapelaren diametroa desberdina izaten da, 5-10 zentimetrokoa. Hasieran txapel ganbila da eta hedatua gero. Txapeleko azala marroia edo okre iluna da, zimurra alea gaztea denean, zahartzean zurbilagoa eta erradialki pitzatua zahartzean. Orriak hertsiak, altzodunak eta andatuak dira, hortz batez dekurrenteak. Hasieran zurixkak dira eta gero ilunagoak, kolore okre-marroia, berriz, azkenean, baina orriaren ertzak zurixka jarraitzen du. Hanka luzea, zilindrikoa, batzuetan kurbatua. Oinaldetik lodiagoa da eta muturrean punta du. Orrien ondoan eraztun zurixka mamitsu iraunkorra du.

Esporak kolore okre-marroikoak dira, eliptikoak, eta denek dute poro germinala.

HABITATA: perretxiko hau Euskal Herrian oso arrunta da. Udaberrian eta udazkenean ateratzen da gehienbat multzo trinkotan, makal, zumar, astigar, sahats eta beste hostozabal batzuen enbor bizien oinetan. Ihartutako egurraren gainean hazteko ere alda daiteke.

JANGARRITASUNA: jangarri bikaina da. Batzuek, perretxiko hauek ikusita, puska bat kendu eta bere baratz edo lorategiko leku heze eta itzaltsu batera eraman izan dute, eta enborra noizbehinka ureztatuz urtero 4 edo 5 aldiz jasotzen dute uzta.

AURICULARIA MESENTERICA

DESKRIBAPENA: fruitu-gorputza hankarik gabeko txapel elastiko, laua eta uhindua da, eta 5-15 zentimetroko zabalera du. Gainaldetik iletsua eta kolore gris eta arre-grisaxkaren tartekoa. Ertza zurbilagoa da, uhindua eta gingildua. Azpialde edo himenioa gorrixka-purpura eta purpura-ilun tartekoa da, plisatu-nerbioduna, sare baten moduan, esporak utzitako lauso zurixkaz partzialki estalia.

Esporak handiak dira, leunak, ttanttadunak eta zilindrikoak.

Auricularia auricula judaetik txapelaren gainaldeak bereizten du, ez baita ez iletsua, eta bere forma ez da giza belarria bezalakoa.

JANGARRITASUNA: bere mami elastiko eta larrukararengatik ezin da jan.

Ale fresko eta hezeek mami mehe, elastiko eta gelatinakara dute, baina lehorrak daudenean, hauskor eta gogorra.

HABITATA: talde handitan ateratzen da, txapelak elkarri atxikirik, ihartutako zenbait hostozabalen egur eta motzondoetan, tapiz moduan. Giro lehorra egiten duenean ihartuta daudela dirudi, baina euria egin ondoren, bizitasuna berreskuratzen dute. Urte osoan zehar ateratzen da elurra eta hotza gaindituz.

IZAR GORRIA
(Anthurus archeri)

DESKRIBAPENA: karpoforo hau, tindu arrosak dituen arrautza zurixka batetik ateratzen da. Arrautza honek 3-5 zentimetro ditu, eta bertatik arrosa-gorri koloreko 4-7 garro ateratzen dira. Garro hauek izar moduan irekitzen dira eta himenioa dagoen barrenaldea gleba lirdingatsu berde-ilunez estalirik dago. Mami arin, kofatu, oso hauskor eta gorrixka. Kiratsa dario. Espora zuri, leun eta zilindrikoak. Clathrus ruber berdintsua da duen kolore gorriarengatik, baina fruitugorputza kaiolaren antzera itxia da, eta ez izar moduan irekia.
HABITATA: espezie honek historia interesgarria du. 1860 urtean Australiako hegoaldean dagoen Tasmania irlan bakarrik aurki zitekeen. 1900 urtean Australian eta Zelanda Berrian ikusten dira ale batzuk. 1920an Frantziako Ipar mendebaldean agertzen da, Bigarren Mundu Gerran hara joandako soldaduek esporak ekarriak izan behar zituzten. 1953 urtean azaltzen dira berriro, Gironden oraingoan, Bordele inguruko artilezko oihal lantegi batean. Badirudi, esporak Australiatik ekarritako artilean zetozela. Iberiar Penintsulan lehen aldiz Billabonan (Gipuzkoa) ikusten da, hemen ere artilezko oihal lantegia baitago. Gaur egun, 1991 urtean gaudelarik, espezie hau arrunta da Gipuzkoan. Udazkenean ateratzen da eskuarki, hariztietan. Orain dela 5 edo 6 urte espezie hau Nafarroara pasatu da Bidasoa eta Aralartik zehar, eta Bizkaira kostaldetik.
JANGARRITASUNA: ez da jangarria.

ARMILLARIA OSTOYAE

DESKRIBAPENA: neurri ertaina du, bere txapelak 10-15 zentimetrorainoko diametroa izan dezake, hasieran ganbila da, gero lautua eta ondulatu samarra eta erdialdea sartua eta ertza hasieran biribilkatua du, gero matazatua errezel partzialaren hondarrez eta ildaskatua gardentasunez. Kutikula higrofanoa du, marroi-ilun kolorekoa eta ezkata arrexkaz estalia, erdialdean trinkoagoak eta kontzentrikoki jarriak. Orriak hertsi samarrak, itsatsiak edo ia dekurrenteak, hasieran zurixkak, gero krema-kolorekoak eta arregorrixka koloreko orbanak. Hanka, 10-15x2-2,5 zentimetrokoa, zilindrikoa da, kurbatua soropilduta haztean, hasieran betea, gero leizetsua eta mintzezko eraztun zuria eta iletsua du, zuria goialdean eta arrexka behealdean. Azala zurixka du eraztunaren gainetik eta ildaskatua luzaran matazatua eta arrexka kolorekoa behealdean. Esporak eliptikoak, leunak, hialinoak, ttanttadunak eta ez amiloideak.

HABITATA: uda-udazkenean ateratzen da ihartutako edo gaitzak jotako “Picea” edo “Abies”en enbor eta sustraietan. Nahiko espezie arrunta da Euskal Herrian, arrunta Nafarroako Pirinioetan.
JANGARRITASUNA: mami zurixka eta mehea txapelean, zuntzezkoa hankan, usain ahula baina atsegina eta zapore gozoa.

BIZKARROIA
(Armillaria mellea)

DESKRIBAPENA: txapela hasieran ganbila da, baina gero laua, ezti edo herdoil kolorekoa. 4-10 zentimetroko diametroa du eta eraztun edo errezel himenialaren aztarnaz apaindutako ertz ildaskatua. Txapeleko azalak tente ditu ezkata ilunak. Orri hertsi, andatu eta hari batez dekurrenteak. Zurixkak dira, hori edo herdoilez nahasiak. Hanka zuntzezkatsua, elastikoa, luzea eta zahartzerakoan kofatua. Hankak goialdean eraztun zurixka du eta oinaldea hazia. Var. Lutea barietatean, hanka hori iluna edo okrea da, baina goialdean zurbilxeagoa, eta eraztuna horixka. Mami zurixka du. Lizun usaina du eta zaporea hasieran geza da baina segundo batzuk pasa ondoren, mingotsa. Espora zuri, leun, eliptiko eta ez-amiloideak.

HABITATA: perretxiko arrunta da. Uda-udazkenean ateratzen da talde hertsitan, ihartuta edo bizirik dauden konifero eta hostozabalen zuhaitz-egurraren gainean; beraz, saprofitoa izan daiteke ihartuta dagoen motzondo edo eroritako arbolen egurrean, eta parasitoa bizirik dagoen arbolen oinalde edo sustraietan.
JANGARRITASUNA: kontuz ibiliz gero, jangarriak dira. Lehenbizi hanka kendu, gero frijitu eta oso ondo egin arte utzi. Ez jan labean eginda, horrela jateagatik zenbait pozoiduraren berri izan baitugu.
Berauen artean antz handikoak diren Ermillaria desberdinak daude. Kolorearengatik eta hankaren formarengatik bereizten dira bereziki eta, guziaz gain, ezaugarri mikroskopikoengatik.

ARMILLARIA BULBOSA

DESKRIBAPENA: neurri ertainetik handira artekoa da, bere txapelak 10-15 zentimetrorainoko diametroa izan baitezake. Hasieran kanpai-formakoa, gero ganbila eta ondulatua eta azkenik lautu samarra eta askotan erdialdea sartua du. Kutikula lehorra, arrexka-okre kolorekoa, ezkata zuntzezkatsu ilunagoz estalia, hauek erdialdean trinkoagoak dira eta ertza barnerantz kurbatua, matazatua, apendizeduna eta zertxobait ildaskatua du. Orriak hertsi samarrak, ia dekurrenteak, zurixkak eta orban arrexkak. Hanka, 6-12x0,5-1,5 zentimetrokoa, zilindrikoa da, baina oinaldea erraboilduna du, betea ale gazteetan, leizetsua helduetan, azala matea, lehorra, okre kolorekoa, kolore horiko xingoletan jarritako ezkataz edo matazaz estalia, erraboil aldea more-arrexka kolorekoa da. Bere goialdean eraztun igarokor bat du, hasieran zuntzezkatsua eta zuria, gero horixka-grisaxka eta ertza horia. Espora eliptikoak, leunak, hialinoak eta ez amiloideak.
HABITATA: uda-udazkenean ateratzen da, itxuraz lurraren gainean baina beti lurpeko egurraren gainean edo hostozabal zuhaitzen sustrai ihartuetan. Espezie arrunta da Euskal Herrian.
JANGARRITASUNA: mamia lodia eta trinkoa diskoan, zuntzezkoa hankan, zurixka kolorekoa, usaina nabaritu ere ez da egiten eta zapore gozoa du baina gero astringentea.

IZARPUTZ HIGROMETROA
(Astraeus higrometroa)

DESKRIBAPENA: lur hareatsuko espeziea da. Hasieran lur azpikoa da eta gero, kanporatu ondoren, izar moduan irekitzen da. Gehienetan basoko espezieak da. Fruitu-gorputza hasieran globularra da, 1-5 zentimetroko diametrokoa, eta gero bere exoperidio edo kanpoko geruza 6-10 puntetan banatzen da. Giroa hezea dagoenean ireki egiten da, izar forma hartuz. Geruza hau mamitsua da, kolore beix eta marroiaren tartekoa, eta askotan pitzaturik egoten da. Giroa lehorra dagoenean gogortu eta itxi egiten da, gleba berriro bilduz. Barrengo geruza edo endoperidioa leun eta mintzaira da, gris eta marroiaren tartekoa, ez du hankarik, gleba biltzen du eta goitik zulaturik dago. Gleba marroia da eta heldua denean haustuna. Gleba hau, forma globularra duten espora kanela-marroi garatxodunek eta harizpizko kapilizio adarkatuak osatzen dute.

HABITATA: udazkeneko perretxiko hau Euskal Herrian arrunta da.
JANGARRITASUNA: ez da jangarria.

NIKTALI HANDIA
(Asterophora lycoperdoides)

DESKRIBAPENA: niktaliak perretxiko txikiak dira. Txapelaren diametroa ozta-ozta 3 zentimetrora ailegatzen da. Hasieran txapel zurixka da, baina gero, konidioz eta klamidosporaz osatua dagoenez, haustun itxurako kolore okre zikinekoa. Orri estu eta zurixkak, baina ia ez dira ikusten, tolesturen moduan agertzen baitira. Hanka motza, zuria, zetakara eta zuntzeskatsua da eta iluntzeko joera du. Mamiaren kolorea zurixka eta grisaren tartekoa da. Irin minduaren usaina du. Espora zurixka eta eliptikoak ditu eta izar formako klamidospora marroiak.

Nyctalis parasitica antz handikoa da, baina txikiagoa, eta txapeleko azala leuna da, ez haustuna, horrelako klamidosporarik ez baitu, eta gehienetan, usteltzen ari diren *Russula delica* edo *Lactarius* zurien gainean ateratzen da.
HABITATA: udazkenean ateratzen dira, hostozabalen basoetan gehienetan, talde txikitan, usteltzen ari diren Nigricans taldeko Russula eta Lactarius zurien gainean. Udazkenean ateratzen da, eguraldi hezea egiten duenean,batez ere hostozabalen basoetan, 4-6 aleko talde txikitan, beztutako *Russula nigricans* eta noizbehinka *Lactarius vellereus* ustelen gainean. Urte batzuetan ugari izaten da.
JANGARRITASUNA: ez da jangarria.

ASTAPUTZ BERUNKARA
(Bovista plumbea)

DESKRIBAPENA: fruitu-gorputzak forma globularra du, batzuetan besteetan baino zapalagoa. Diametroa 5 zentimetrorainoko ailega daiteke eta ez du hankarik. Bi geruzatako azalak estaltzen du: kanpokoa edo exoperidioa, lodia, leuna eta hauskorra. Geruza hau erortzen joaten zaio eta azpian dagoen beste geruza mehea edo endoperidioa agertzen da. Bigarren geruza mintzaira hau hasieran zuria da eta gero berun-gris kolorea hartzen du. Esporak heltzen direnean kanpora ateratzeko zuloa irekitzen zaio gainaldetik geruza honi. Barrenaldea edo gleba hasieran mamitsua eta zuria da eta kolore horia hartzen du gero. Azkenik kolore marroi-purpurako hauts bihurtzen da. Esporak arreak, ia libreak eta globularrak dira, baina luzapen edo pedizeloa erantsirik dute oinaldean.

Astaputz berunkararen karpoforoek belar gaineko golf-pilota oroitarazten digu. Bovista nigrescens handiagoa da eta barrengo geruza edo endoperidioak kolore beltz distiratsua hartzen du heldua denean.
HABITATA: perretxiko arrunt hau udan eta udazkenean belarretan ateratzen da talde txikitan, eguzkitan, arbolarik gabeko belardi, errepide ertz, golf zelai, parke, eta abarretan.
JANGARRITASUNA: gleba zuriko ale gazteak jangarri kaxkartzat hartzen dira. Ale zaharrak berriz, botatzeko modukoak dira.

ASTEROPHORA PARASITICA

DESKRIBAPENA: espezie txikia da, txapela ia ez baita 1-3 zentimetroko diametroa iristen. Lehendabizi hemisferikoa edo konikoa da, gero ganbila eta azkenean lautu samarra eta ondulatua, ertza hasieran biribilkatua eta azkenean ertzak altxatuta dituela. Azal leuna eta zetakara du, zilar kolorekoa edo zuria da eta zuntzezka erradial finez estalia. Orri bakanak, dekurrente samarrak edo erdi itsatsiak, zurixka edo grisaxkak eta ertzak bikorezkoak. Hanka luzea, 2-4x0,2-0,3 zentimetrokoa, zilindrikoa, kurbatua, betea gaztetan eta barrutik hutsa heldutakoan, azal leuna, baina txapelaren kolore bereko luzerakako zuntzezka finez estalia eta oina ere ilupa zuri mizeliodun batez estalia. Espora eliptikoak, gardenak, leunak eta ez-amiloideak. Klamidosporak orrietan daude eta ez txapelaren gainean Asterophora lycoperdoidesek dituen bezala, leunak, ttanttadunak, fusiformeak eta ez-amiloideak dira.

HABITATA: talde soropildutan hazten da *Russula* zurien espezie erdi ustelduetan, delica taldeko eta piperatus taldeko Lactarius zurien gainean, udazkenean batik bat. Ez da espezie arrunta gure Herrian.
JANGARRITASUNA: mami mehea, zurixka eta irin usain eta zaporekoa.

MUKIBOTOI BELTZA
(Bulgaria inquinans)

DESKRIBAPENA: egitura gelatinakara du, azal leuna eta erabateko kolore beltza goitik dagoen barrenaldetik, eta behetik dagoen kanpoaldetik bikortsu eta okreagoa. Batzuetan, gaztea izanik, forma globularra har dezake, baina gehienetan katilu forma du, ez oso sakona, eta askotan gainalde altua, arrunt laua. Mami beltza eta gelatinakara du eta espora leun eta elipsoidalak, arrautza eta giltzurrunaren arteko formakoak.

Perretxiko honen izenak adierazten duenez, Bulgaria-k botoi antzeko forma du.
Beste perretxiko gelatinakara beltzekin nahas liteke, esate baterako Exidia glandulosa eta Exidioa truncatarekin, baina azken hauek Basidiomikotinoak dira.
HABITATA: multzoka ateratzen da hostozabalen egurretan, batez ere *Quercus* generoko zuhaitzetan
JANGARRITASUNA: ez du inongo interes gastronomikorik.

ASTAPUTZ MAILOKATU
(Calvatia utriformis)

DESKRIBAPENA: gorputz emankorra, 6-15 zentimetroko diametroa eduki dezake, piriformea, gaztetan zuria griserantz, heltzean arrea. Exoperidioa edo kanpo gainazala geruza zuri ilupatsua osatzen du, gero apurtu eta marrazki erretikulatua sortzen du, gero apurtu eta marrazki erretikulatua sortzen du, gleba duen barrualdea agerian utzita. Gelba, heltzean, ireki egiten da eta esporei kanpora irteten uzten die. Desagertzen direnean, perretxikoaren barrualdea bertan gelditzen da luzaro, desagertu barik.

HABITATA: zelaiak, larrediak eta mendi txikiak udazkenean eta udaberrian.
Perretxiko nahiko arrunta, zelaietan urrunetik ikusten da, isolatuta edo txanpinoien antzeko taldeak osatuz.
JANGARRITASUNA: gaztea denean jangarria.

ZAKU ASTAPUTZA
(Calvatia excipuliformis)

DESKRIBAPENA: fruitu gorputza handia da eta 15 zentimetroko altuera har dezake; udarearen forma du eta zertxobait bereizitako buruak eta lodieran 6 zentimetroko sasi-hanka zilindriko batek osatzen dute; aipatutako sasi-hankak luzeran tolesturak izaten ditu eta oinalderantz estutua da. Kanpoko azala edo Exoperidioa zurixka edo marroia izaten da dituen egunen arabera eta hasieran zuriak eta gero zahartuz doazen eran marroi bihurtu eta desagertzeko zorian egoten diren 2 milimetroko eztenek estaltzen dute burua. Barneko azala edo endoperidioa zuria da eta gero, zahartuz doan eran, marroia bihurtzen da. Bere azal leun eta distiratsuak pergamino baten antza du eta zahartzean urratu egiten da kanpora ateratzen diren esporak aske uzteko; azkenean desagertu egiten da. Gleba edo zati emankorra, "buru"aren barnean dago; hasieran zuria eta harroa izaten bada ere, gero arreoliba kolorekoa da eta heltzean, haustun eta marroi bihurtzen da. Glebaren azpian, sasi-diafragma batek garbi bereizten duen azpigleba bat dago; zelulosaren egitura du eta negu gorrian ere irauten du. Esporak globo-formakoak, marroiak eta garatxodunak dira eta pedizelo bat dute.

HABITATA: espezie arrunta Euskal Herrian eta udaudazkenean ateratzen da koniferoen zein hostozabalen baso hezeetan.
JANGARRITASUNA: ez da jangarria.

MIKIADAR LABURRA
(Calocera cornea)

DESKRIBAPENA: fruitu-gorputza adar edo kali formakoa da, eta altuera cm bateraino ailega daiteke. Kolore hori edo hori-laranja du eta oinaldean zuria, himenioa dagoen lekuko gainaldea leuna, labankorra eta lingirda. Espora zuri, ez-amiloide, leun, tantadun eta zilindrikoak ditu.
Bi esporadun basidioak ditu, urkilatuak eta oso handiak.
Begiratu batean, Clavaria batekin nahas daiteke espezie hau, forma eta kolorea berdintsuak baitira, baina ezaugarri mikroskopiko desberdinak ditu.
Calocera viscosa kolore berdinekoa da, baina handiagoa. Azken honen fruitu-gorputza adarkaturik dago eta koniferoen motzondo usteletan ateratzen da, eta behin ere ez hostozabaletan.

HABITATA: udan eta udazkenean ateratzen da talde txikitan ihartutako edo usteldutako egurraren gainean, bai hostozabal eta bai koniferoetan. Oso arrunta da.
JANGARRITASUNA: espezie hau ez da jangarria, oso txikia baita.
Mami sendo, elastiko eta gelatinakara du. Zapore geza. Usainik ez.

MUKIADAR LUZEA
(Cladocera viscosa)

DESKRIBAPENA: fruitu-gorputzak koralaren antza du eta *Clavaria* edo *Ramaria* txikiak gogorarazten dizkigu: txikia da, 2 eta 10 zentimetro arteko altuera izan dezake; azala leuna eta likatsua izateaz gainera, arrautzaren kolore hori bizia edo hori-laranja ere badu. Enbor beretik sortu eta 2 edo 3 puntaz edo adarrez amaitutako adar zilindrikoek osatzen dute bere gorputza. Behealdea sustratzailea da eta luzeran 20 zentimetro neur dezaketen sustrai antzeko rizimorfo zurixkak sartzen dira zurezko substratuan. Himenioa edo zati emankorra,berriz, azalean zehar hedatzen da, diapason-forma nabarmena duten basidio urkilatu, bisfioriko eta handiak ditu eta esporak hialinoak, ez amiliioideak, leunak eta eliptikoak dira. Eguraldi hezea denean sortzen diren aleen mamia samurra, lingirdatsua eta elastikoa izaten da; eguraldi lehorrean sortutakoena, aldiz, larruaren antzekoa, hauskorra eta hori margula.

HABITATA: arrunta da Euskal Herrian. Udan eta udazkenean ateratzen da, bakarrik edo talde txikietan, koniferoaren egur usteldu eta hezeetan. Urrunetik daiteke kolore hori bizikoa baita.

JANGARRITASUNA: ez da jangarria, toxiko samarra baizik, zenbait kasutan urdailean eta hesteetan hainbat gorabehera sortu baititu.

BOILUR MAZO
(Cordyceps capitata)

DESKRIBAPENA: oin nahiko luzeko fruktifikazioa, zilindrikoa eta buru azpi-globoa, kolore arre horixkakoa, batzuetan oliba kolorekoa, puntadun gainazalarekin, oin horixka sigi-sagako marrazkiarekin, gutxi gorabehera azaleran eta beste erdia lurpean, *Elaphomyces* generoko onddo hipogeoarekin lotuta.

Beste onddo baten bizkarroia den onddoa da (lurpean irteten den hipogeoa). *Cordyceps ophioglossoides* deritzonarekin nahas daiteke eta hori ere Elaphomyces generoko espezieen bizkarroia da, baina hori kolore beltzekoa da eta *Geoglossum* generoaren antzeko formak ditu.

HABITATA: baso anitzak, *Elaphomycesen* bizkarroitzat, arraroa, udazkenean.

JANGARRITASUNA: baliorik gabe.

ATZAPAR ZIMURRA
(Clavulina rugosa)

DESKRIBAPENA: karpoforoak 12 zentimetroko altuera izan dezake eta 0,5-1 zentimetroko lodiera gehienez. Irregularra da eta gehienetan klabiformea; beste batzuetan, berriz, adarkatua edo lautua, baina beti izaten du goiko aldea zabalagoa eta beheko aldea ia puntan amaitua. Himenioaren azala zimurtua da, gero tuberkulosa, maiz bihurria eta luzeran ildaskatua. Koloreari dagokionez, goiko aldea, batik bat, zuri edo zuri-matea da; behealdea pittin bat grisaxka. Mamia biguna eta hauskorra da; zuria da, ez du kolorerik; ez du zaporerik; gozoa da. Esporak globo-itxurakoak dira, leunak, ttantta-formakoak, hialinoak eta ez amiloideak.

HABITATA: udan eta udazkenean ateratzen da talde txikietan, lur gainean, koniferoen zein hostozabalen basoetan. Nahiko arrunta da Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: ez da jangarria. Badira honekin nahas daitezkeen zenbait *Clavaria* txiki zuri: *Clavulina cristata* askoz adarkatuagoa da, muturrak oilar gangar-gorriaren antzera, ezten finez amaitzen dira eta esporak txikiagoak ditu. Clavulina cinerea, era berean, zertxobait adarkatuagoa da eta azala zuria, grisa eta lila artean du. *Clavaria verminularia* erabat zuria bada ere, puntetan okrea da batzuetan; forma irregularra izateaz gainera, sortakaturik ateratzen da.

UDALERRIKO ZIZAZURIA
(Calocybe gambosa)

DESKRIBAPENA: udaberriko zizaren txapela, lodia, trinkoa eta irregularra da, kolore zuri eta krema-okreskaren tartekoa, eta honen azala lehorra, matea, zetakara eta leuna. Ertza biribilkatua. Orriak hertsiak, altzodunak, kolore zuri eta krema tartekoak eta gutxi gorabehera andatuak. Hanka mardula, trinkoa, nahiko motza eta txapelaren kolorekoa. Mami lodi, sendo eta zuria. Irin freskoaren usain eta zaporea. Espora zuri, estu eta eliptikoak. Oso jangarri bikaina izan arren, kontuz ibili behar da udaberriko perretxiko pozoitsuekin ez nahasteko: Amanita verna eta Inocybe patouillardiarekin batez ere, biak zuriak, baina Euskal Herrian oso arraroak dira zorionez. A. vernak eraztuna eta bolba ditu eta I. Patouillardik txapela konikoagoa eta gorritzeko joera duena, eta orriak krema-okreak dira. Bi espezie hauek ez dute irin usainik gainera. Bestalde, negu epela egin ondorengo Maiatzean Entoloma lividuma atera daiteke, 1989. urtean gertatu zen bezala.

HABITATA: martxotik aurrera sorgin-korroetan ateratzen da leku altuetan, itsasotik urrun, eta udako lehen egunetan berriz azken aldeak, larreetan edo goi mendietako basoetan. Noizbehinka udazkenean ateratzen dira eta kontuz ibili behar da orduan, oso erraza baita usain berdintsu eta antz handiko Entoloma lividum pozoitsuarekin nahastea.

JANGARRITASUNA: perretxiko hau izaten da garestiena Euskal Herriko merkatuetan eta askotan prezio izugarriak pagatu dira.

GARDINGA
(Chlorosplenium aeroginascens)

DESKRIBAPENA: 5-6 milimetroko diametroa disko antzeko formako onddoak, lauak edo leunki kopuliforme, bilakatzen den adar eta egurrak urdin-berde kolore deigarriez dena tindatzen.
Batzuetan multzoa agertzen dira, hanka txiki bat erakutsiz, larretik baztertzen duena.
Sortu berri eta gazte espezietan, kanpo azala argiagoa eta hauts-antzekoa da.
Mamia oso fina, kolore berberekoa, eta funtsezko aldetik, gelatinakara baino elastikoagoa. Aurreko azala edo himenioa, idoak urdintzen duen puntako porozko, asku zilindroez estalirik dago. Goi aldean, behintzat, bi lerrotan kokatzen diren 8 espora ditu, 5 mikrarainoko diametroak.

Espora luzatuak, fusiforme, kolorerik gabe, horma leunak, eta bere barruan zenbait gantz txiki ttantta dutela.
Parafisoak agertzen dira askuen artean, meharrak eta muturrean zabaldurik, zenbait oinarrian adartuak.
Bere morfologiagaitik zenbait pezizaz oker gaitezke baina adar gainean uzten koloreagatik ez du nahas biderik.
HABITATA: udazkenean eratzen ditu fruktifikazioak, abuztu erditik eta azaro bukaera artean, nahiz eta urte osoan zehar non eta adar gainean bilakatzen den mizelioak urdinberde kolorea hartu.
Hostogalgorrezko pago eta hariztien adar eta egur gainean erraz kokatzen da.
JANGARRITASUNA: bere neurriagatik, ez du gastronomiko baliorik.

CUPHOPHYLLUS RUSOCORIACEUS

DESKRIBAPENA: perretxiko txikia, txapelak ia ez du 0,5-2 cm-ko diametrorik. Hasieran globo formakoa da, gero ganbila eta azkenik nola edo hala lautua eta batzuetan baita arinki sartua ere. Ertza ildaskatu samarra, batez ere giro euritsuan. Azal higrofanoa du, leuna, kolorea marfil-zuriaren eta krema-zuriaren tartekoa, eguraldi lehorrean kolore okrea hartzeko joera badu ere. Orri dekurrenteak, bakanak, makurrak edo goranzkoak, zuriak edo zuri-krema kolorekoak. 2-3x0,2-0,3 zentimetroko hanka, mehea, izurtsua, zilindrikoa, oin estutua, leuna, lehorra, lika gabea eta txapelaren kolorekoa. Espora eliptikoak, leunak, gardenak eta ez amiloideak.
HABITATA: espezie arraroa da Euskal Herrian. Berandukoa da, Urriaren azken aldetik Azaroaren azken alde arte ernetzen da mendiko larreetako belar edo goroldio tartean edo baso ertzetan.
JANGARRITASUNA: txapelaren aldean mami lodia, hauskorra, kolore krema-zurikoa, zaporea, berriz, gozoa eta usaina atsegina eta fina *"Errusiako larruarena edo zedroarena".*

BELARDI EZKOA
(Camarophillus pratensis)

DESKRIBAPENA: txapela ezkila formakoa da eta 2 zentimetrotik 8 zentimetroraino diametroa du. Lehorra, herdoil koloretik hori-okreraino, ilunagoa erdialdean eta ertz meheak. Orri kurbatuak, lodiak, bakanak, oso dekurrenteak, hasieran krema-zuria eta gero horia. Hankaren kolorea txapelarena baino hitsagoa. Beheko aldean gero eta meheagoa. Askotan kurbatua. Mami zurixka, tinko eta ahula. Usain eta zapore leunak baina atseginak. Espora zuriak, arrautza formakoak. Hasieran esan dugunez, urte bukaeran ateratzen dira, gramineoekin mikorrizaren bidez kideturik. Orain dela urte batzuetatik hona Donostiako merkatuetan ikusten dira baina ez dira onddoak eta gibelurdinak bezain preziatuak. Hygrophorus nemoreusekin nahas liteke baina azken hau txikiagoa da eta basoetan ateratzen da, ez belardietan.

HABITATA: hau da *Hygrophoraceae* familiako perretxikorik preziatuena. Perretxiko biltzailearentzat oso interesantea da espezie hau. Alde batetik, asko izaten baita penintsulako iparraldeko belardi hezeetan; bestaldetik, berandu ateratzen delako, Urriaren azken egunetatik urtea bukatu arte.
JANGARRITASUNA: oso jangarri ona da.

KAIOLA GORRIA
(Clathrus ruber)

DESKRIBAPENA: hasieran ia esferikoa den arrautzaren forma du edo golfeko pilota batena, 4-10 zentimetroko diametrora irits daiteke eta badu lurpeko mizelio-lokarri bat, bere behealdean adardun samarra, eusteko eta lurrari lortzeko. Aipatutako *"arrautza"* hori kolore zuriko mintz elastiko batek estaltzen du, *"peridio"* deitua, eta bere goialdean marrazki batzuk ikus daitezke erliebean dauden laukitxoen antzekoa eta horren bidez bereizten dira antzekoak diren beste espezie batzuetatik, baina aipatutako zona hori deuna dutenak, hala nola, Etsai eztena eta Izar gorria. Geroago, karpoforoa heltzen hastean, aipatutako peridio hori hautsi egiten da goialdean eta gorrixka-laranja koloreko masa ateratzen da kanpora eta poliki-poliki kaiolaren forma hartzen joango da; bere *"barrote"* irregularrak gorrixkak, zimurdunak eta antzuak dira kanpoaldean, bere barrualdea, aldiz, hor aurkitzen da himenioa, muzilagoduna eta berdexka da eta kiratsa dario. Fruitu-gorputz hau, *"arrautza"*tik irten ondoren, bere heldutasunean, 12x9 zentimetrorainokoa izan daiteke, gorrilaranja kolore ederra du, Amaniten antzeko bolba baten gainean kokatua, eta bolba hau bere peridio elastikoaren hondarretatik dator.
HABITATA: udan eta udazkenean, lorategiak eta basoetako argiuneak. Espezie hau bakarrik edo talde txikitan egoten da.
JANGARRITASUNA: ez da jangarria. Sukaldaritzarako baliorik ez duena.

ATZAPAR ZURIA
(Clavulina cristata)

DESKRIBAPENA: fruktifikazioak 2-7 zentimetroko altuera du eta oso adarkaturik dago. Adarrak askotan zanpaturik daude, banatu egiten dira, eta azkenean puntek gandor forma hartzen dute. Azala kolore zuri-kremakoa da, baina batzuetan tonu gris-lila hartzen du. Kolore honen eragilea Clavulina cristataren parasitoa den Spsadicioides clavariarumen forma osagabea da. Kolore honengatik Clavulina cinerearekin nahas daiteke, azken honen kolorea errauts gris eta morea baita. Clavaraceae guzietan bezala, himenioa azal guzian zehar hedatzen da. Esporak zuriak, leunak eta eliptikoak dira, ttantta bakarrekoak. Clavulina rugosak Clavulina cristataren forma batzuen antza du, baina ez da adarkatua, zimurtu eta bihurturik dago eta esporak handiagoak eta ia esferikoak dira. Clavulina cinereak ere Clavulina cristataren forma parasitatuen antz handia du, baina fruktifikazioaren puntak adarkatu gabe daude, edo ia adarkatu gabe, eta adarrak lodiagoak, zimurtuak eta irregularrak ditu.

HABITATA: espezie hau arrunta da udan eta udazkenean. Talde txikitan ateratzen da, orbel ugari dagoen lurretan, bai hostozabal eta bai koniferoen basoetan.

JANGARRITASUNA: jangarri kaxkarra, inongo interes gastronomikorik gabekoa.

Mamia mehea, biguna eta hauskorra da, kolore zurikoa. Zapore geza, ia usainik gabekoa.

EGUR ORIN HORIA
(Calycella citrina)

DESKRIBAPENA: ziza hauek 1-3 milimetroko diametrozko kopa edo disko-formako askomizetoak dira, lurrari lotzen dira inolako hanka berezirik, edo hanka izatekotan guztiz txikitua.

Hemen aurkezten dugun orin horia, karpoforo osoak duen arrautza kolore horiari esker oso erraza egiten da bereiztea; bere mamia fina da, o,5 milimetroko lodiera, kolore berberekoa, eta batzuetan multzoka agertzen da.

Gelatinazko mamia lehortzean biribilkatzen delarik, batere hauskorra.

Bisporella sulfurina antzekoa da, baina honen luzatutako esporak desberdintzen ditu; badu ere Cheilymenia zenbait espezieren antzik, hauek gorotz gainean ateratzen dira, lupaz baliatuz disko ertzean ileak daramatzala.

Hanka nabarmengarriagoa duten beste zenbait antzeko zizak badira: *Hymenoscyphus* generokoak, honen barruan *H.calyculus* hori-kolore berekoa, batzuetan kolorerik gabe eta *H.frutigenus*, hezur gainean ateratzen dena.

HABITATA: abuztu azkenetik eta abendu azken egun arte, hostogalkorrezko ingurunetan. Pago, *Fagus sylvatica,* adartxo gainetan multzoa, agertzen da, askoz arraroagoak izanik haritza, arte eta pinuenetan.

JANGARRITASUNA: espezie hauek, beren neurriagatik ez dute interes handirik.

BASOETAKO KLITOZIBEZURIA
(Clitocybe cerussata)

DESKRIBAPENA: perretxiko hau nahiko mardula da. Formaren aldetik Ilarrakaren antz handia du, baina ez kolorearen aldetik, zuria baita. Txapela ganbila da, unbonatu samarra, eta azal satinatu batez estalia. Bere kolorea zuri-zuria da eta tarteka krema koloreko zonak ikus daitezke. Bere diametroak 5-8 zentimetro ditu. Orriak hertsiak eta meheak dira, hasieran zuriak baina gero krema kolorekoak. Hanka 1,1,5 zentimetroko diametrokoa da, azpialdetik lodixeagoa, hasieran zurixka eta gero krema. Esporak zurixka-arrosak dira, ez zianofiloak eta ia esferikoak

HABITATA: Euskal Herrian ez da arrunta. Uda-udazkenean ateratzen da, bai koniferoen eta bai hostozabalen basoetan

JANGARRITASUNA: pozoitsua da. Perretxiko honek eragindako pozoidurak muskarina-motakoak dira (izerdi asko, taupada azkarrak, etab.). *Clitocybe zuri* gehienen pozoindurak honelakoak dira (*Clitocybe dealbata, Clitocybe rivulosa, Clitocybe candicans,* etab.). Komeni da *Clitocybe* zuririk ez jatea. *Melanoleuca* zuriekin nahas liteke, baina Euskal Herrian ez da horrelakorik jaten zorionez, nahiz eta jangarriak izan.

Mamia zuria da eta irin-esperma usaina du.

KLITOZIBE ZOLALODI
(Clitocybe clavipes)

DESKRIBAPENA: txapela 4-7 zentimetroko diametroa duena. Laua eta ganbila, gero laua, apur bat titiformakoa baina ez beti. Arre-griseska kolorekoa, kutikula zelaia, bereziki ahal dena.

Orriak oso dekurrenteak, zuriak edo zuri-kremak, estutuak, lameluladunak.

Hanka luzea, klaba formakoa, txapelaren kolorekoa edo apur bat argiagoa, biguna, lasaia.

Hain klaba formakoa ez den hanka duen ilarraka (*Clitocybe nabularis*) delakoarekin eta handiagoa eta kolore argiagokoa den eta titi nabarmen-nabarmena duen San Martin ziza (*Clitocybe geotropa*) delakoarekin nahastu ahal da.

HABITATA: udazkenetan koniferoen basoetako leku goroldiotsuak.

JANGARRITASUNA: jatekoa. Haragia zuria, biguna, lodia erdialdean, onddo-usain sakonekoa, zapore atseginekoa.

ERROTARI FALTSUA
(Clitocybe dealbata)

DESKRIBAPENA: espezie hau aski txikia da. Txapelak 1,5-4 zentimetroko diametroa du. Hasieran ganbila da eta gero laua. Bere kolorea zuri edo zikina da. Txapelaren azala distiratsua eta satinatua da, eta ertza irregularra eta ondulatua. Orriak dekurrente samarrak dira, krema zikin kolorekoak eta nahiko hertsiak. Hanka motza, gogorra eta zuntzezkoa. Mamia zurixka, mehea eta elastikoa. Irin usain pixka bat du. Esporak zuriak dira, ez amiloideak eta eliptikoak.

HABITATA: uda-udazkenean ateratzen da belarretan talde txikietan, belardietan edo bide ertzetan, baina beti basotik kanpo

JANGARRITASUNA: *Clitocybe* zuri gehienak pozoitsutzat hartzen dira eta haien arteko eredu bezala jar genezake Errotari faltsua.

Pozoitsua da. Espezie honek eragindako pozoidurak muskarina-motakoak dira. Euskal Herrian pozoidura batzuk gertatu dira, jangarria den *Clitopilus prunulus* espeziearekin nahasten baita, baina azken hau hauskorra da eta ez elastikoa. Bestalde, bere orriak oso dekurrenteak eta arrosa kolorekoak dira. Gainera, bere irin usaina askoz lehenago nabaritzen da Errotari faltsuarena baino.

ILARRAKA
(Clitocybe nebularis)

DESKRIBAPENA: txapela 5-15 zentimetroko diametroa duena, ganbila, korkoxa, gero zabaldua eta bukaeran apur bat deprimitua, gris edo arre-gris kolorekoa, ilunagoa erdialdean, batzuetan pruina zurikaila duena, ertz apur bat kurbatua.

Orriak estuak, krema-zurikailak, lameluladunak, adnatak eta gero apur bat dekurrenteak, txapelaren haragitik errazki bereizten direnak.

Hanka klaba formakoa eta trinkoa, zuntzezkoa, goialdean moteldua, zurixka eta apur bat grisa.

Oso arrunta da eta ezaguna da Maltzurra *(Entoloma lividum)* delakoarekin nahastu ahal da; nahasketa horrek gure eremuan pozoidurak urtero ekartzen ditu. Maltzurra *(Entoloma lividum)* espezieak orriak eskotaturik ditu, eta heltzean izokin-kolorekoak; eta Ilakarra *(Clitocybe nebularis)* espezieak, orri dekurrenteak eta krema-zuri kolorekoak.

HABITATA: urritik abendura arte pinudiak, hariztiak, pagadiak eta txilardun belardiak.

JANGARRITASUNA: jatekoa da, baina urdail batzuek txarto pasatzen dute.

Haragia zuria, sendoa lodia, azkenean belakitsua, usain zehaztugabe sakona (*"ilarraka-usaina"*), zapore meleka.

URRIL-ZIZA
(Clitocybe geotropa)

DESKRIBAPENA: hasieran perretxiko honen hanka lodia da eta txapela aski txikia du. Perretxiko guztia okretik beixerainoko kolorekoa da. Gero ordea, txapela handitu egiten da, baina ez hanka, bere neurriak ia berdin jarraitzen baitu. Heldua denean txapelak inbutu forma hartzen du. Txapelaren diametroa 30 zentimetrorainokoa izan daiteke. Orriak dekurrenteak eta hertsiak dira, isla arrosadun krema kolorekoak. Hanka mardula eta zuntzezkoa da, txapela baino argixeagoa eta klabiformea, orrien aldean meheagoa. Mamia zurixka eta gogorra da, zuntzezkoa hankan. Usain zianikoa du, edo almendra usain ahula. Esporak zuriak dira, ez amiloideak eta arrautza formakoak. Euskal Herrian Platera izena du eta San Martin ziza ere bai, San Martin egunaren inguruan ateratzen baita.

HABITATA: lerroan elkarturik ateratzen dira udazkena bukatzerakoan, hostozabalen basoetan batzuetan eta larreetan bestetan.

JANGARRITASUNA: Euskal Herrian *Clitocybe* gutxi jaten dira eta horietako bat da hau.

Jangarri ona da. Ez da oso arrunta. *Clitocybe gibba* edo *Clitocybe infundibuliformis* espeziearekin nahas daiteke, hau ere pagoen azpian ateratzen baita, baina ez larreetan. Azken honek ere ditia du gaztea denean eta kolore eta usain berdinak, baina txikiagoa da eta hanka meheagoa. Var. *Maxima Fr.* Barietatea handiagoa da eta ez du ditirik.

CLITOCYBE DECEMBRIS

DESKRIBAPENA: neurri txikikoa da, txapelak 4-6 zentimetroko diametroa izan dezake. Hasieran ganbila da, gero lautu samarra eta erdialdea oso sartua du; ertza leun samarra, baina gardentasunez ildaskatua eguraldi hezea denean. Kutikula leuna, oso higrofanoa, beix arrexka eta koipetsua eguraldi hezea denean, zurixka, zetatsua eta erdialdea arrexka eguraldi lehorra denean. Orriak erdi hertsiak, makurrak, zabalak eta dekurrenteak, hasieran zuri-krema kolorekoak, gerora beix grisaxka bihurtuz. Hanka, 4-6x0,5-0,8 zentimetrokoa, askotan konprimitua edo bihurritua, barrutik hutsik, kurruskatsua, txapelaren kolore berekoa, azala ileka fin zuriz estalia eta iluntzeko joera du oinaldetik hasita gris arrexka bihurtuz. Espora eliptikoak, leunak, hialinoak, tantadunak eta ez amiloideak.

HABITATA: espezie hau berantiarra da, lur gainean taldean sortzen da, Urrian hasi eta Abenduko lehenengo izozteak arte, bai koniferoen basoetan bai hostozabalen basoetan. Espezie arrunta da Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: mamia mehea, elastikoa, zurixka edo beixa, zapore gozoa eta usain ahula, baina atsegina eta ez irintsua.

ANIS-KLITOZIBE BERDEA
(Clitocybe odora)

DESKRIBAPENA: *Clitocybeen* arteko dozena erdi bat espeziek anis usaina dute eta hauen artean dago Anis-Klitozibe berdea, baina honek bakarrik du kolore urdinberdeko txapela. Udan ateratzen da, hostozabaletatik eroritako hostoen artean, eta batzuetan, koniferoen basoetan ere ikus daiteke. Txapelak aurretik esandako kolorea du baina dekoloratua batzuetan, ia zuria var. Alba

Lang. Barietatean. Diametroa 4-8 cm artekoa, ganbila eta irregularra. Orriak hertsiak eta dekurrenteak dira eta beren kolorea berdea, txapelekoa baino zurbilagoa. Mamia zurixka da, berdez tindatua, eta anis usain atsegina du. Zapore lurrintsua baina mingotsa. Esporak zuriak dira, ez amiloideak eta eliptikoak.

HABITATA: Euskal Herrian arrunta da, pagoetatik eroritako hostoen artean batez ere.

JANGARRITASUNA: jangarri kaxkarra, lurrintsuegia eta mingotsa baita. Hau dela eta, batzuk azukredun platerak prestatzen saiatzen dira.

APO-ZIZA
(Clitocybe olearia)

DESKRIBAPENA: txapela: 6 eta 12 zentimetro bitarteko. Lehenengo laua, konbexua, gero erdian sakondua, onilantzekoa, infundibuliformea eta hegala biribilkaturik. Kolorea, laranja edo azafrai horia. Amoniakoaz erreakzio berdea.

Orriak estuturik eta oso dekurrenteak, azafrai horiak, gehienetan fostorargitsu ilunetan. Hanka betea, oso luzea, laranja, erpinean amaituz eta oinaldean baturik;

beste ale batzuekin talde handi samarrak eratzen ditu. Mamia laranja, zuntzua eta zaila. Usain ederra eta jakera goxoa.

HABITATA: udan eta udazkenean, haritz-motzondoen artean talde ugariak eratuz. Hegoaldean, olibondoetan.

JANGARRITASUNA: oso toxikoa, urdaileko hainbat eta hainbat gora-behera larriren sortzailea.

Jateko espezieekin nahasketa: *Cantharellus Cibarlusarekin* (Saltsa- perretxiko), jangarri bikaina, nahasta daiteke, baita ez hain kalitate onekoa den Hygrophoropsis Aurantiacarekin ere, eta biak *Omphalotus oleariusaren* habitat ezberdinekoak.

SARE BIKAINA
(Cortinarius praestans)

DESKRIBAPENA: txapelak 25 cm-rainoko diametroa du eta hasieran hemisferikoa eta distiratsua da, zilar-moreska kolorekoa, baina gero hedatua edo ia hedatua, eta ardan-marroi kolorera inguratu eta gero, islada moreskak dituen txokolate-marroira aldatzen da, batez ere ertzean. Ertzaren gainaldea zimurra da eta bertan, gortinaren kondarrak ikus daitezke. Orriak hertsiak eta adnatu-dekurrenteak dira, hasieran kolore more-zurbilekoak eta gero herdoil-marroiak. Hanka oso mardula da, zilindrikoa, betea eta trinkoa, eta oinaldean ez-azpadun erraboila du. Hankako azala zuntzeskatsua eta zuriska da, eta goialdean islada moreskak ditu. Gortina dexentea du, zetakara eta, zuriska eta moreskadun kremaren tarteko kolorekoa alea gaztea denean, baina zaharra denean, gortina honen kondar herdoil-marroiak gelditzen dira, kolore honetako esporak orrietatik erortzerakoan bertan itsatsirik gelditzen baitira. Esporak herdoil-marroi kolorekoak dira, almendra formakoak eta, *Cortinarius* guzietan bezala, garatxodunak.

Cortinarius generoak beste edozein generok baino askoz espezie gehiago du. Gaur egun, genero honetan sailkaturik dauden espezie desberdinen kopurua 1200 ingurura ailegatu omen da. Ikertzeko oso genero zaila da. Lan hau errazteko beharrezkoa da aktibakor kimikoek azalean eta mamian eragiten duten kolore aldaketa aztertzea. Badirudi *Cortinarius* guzien artean Sare bikaina dela handiena.

Badira antzeko *Cortinarius* batzuk: *Cortinarius durissimus,* honen oinaldea erabat azpaduna edo ia azpaduna da; Cortinarius variecolor, txikiagoa, usain txarrekoa eta koniferoen azpian ateratzen da.

HABITATA: udazkenean taldeka ateratzen da. Talde hauek nahiko handiak dira eta pagoen azpian aurki daitezke batez ere

JANGARRITASUNA: *Cortinarius* gutxi dira jangarriak eta hau horietakoa da, nahiz eta oso ona ez izan.

Mami lodia, gogorra, txapelean zurixka, hankan morea eta oinaldean okrea. Zapore geza eta usain atsegina.

BIDEETAKO KLITOZIBE ZURIA
(Clytocibe rivulosa)

DESKRIBAPENA: txapela hasieran ganbil laua da eta gero zapaldua. Bere kolorekoa okre-arrosa da eta azal zuri satinatu batek estaltzen du. Hau pixka-naka-pixkanaka desagertzerakoan, zentroan kolo-reztaturik dagoen azpiko geruza ikus daiteke. Txapeleko ertza mehea eta ondulata da. Orriak dekurrenteak dira eta krema kolorekoak. Hanka betea eta zuntzezkoa da, hasieran zurixka eta gero okre-arrosaz tindatua. Mamia mehea eta elastikoa da eta bere kolorea zuria. Irin usaina du eta zapore gozoa. Esporak zuriak, leunak eta elipsoidalak dira.
Kontuz ibili behar da Marasmio jangarria (*Marasmius oreades),* espeziearekin ez nahasteko, leku berdinetan ateratzen baitira, eta askotan elkarrekin gainera.

Desberdintasuna orrietan ikus daiteke Marasmius oreadesenak okre kolorekoak dira, hertsiak eta dekurrenteak.
Gerta daiteke Errotaria *(Clitoplius prunulus)* espezie jangarriarekin nahastea ere, baina orriak oso dekurrenteak dira arrosaz tindatuak. Irin usain handia du gainera eta, guziaz, hauskorra da eta ez elastikoa.
HABITATA: Euskal Herrian arrunta da. Estali gabeko lekuetan ateratzen da, belarretan taldeka edo sorgin-korroetan, uda eta udazkeneko hilabeteetan.
JANGARRITASUNA: ez da jangarria. *Clytocybe* zuri honek ere Euskal Herrian pozoidurak eragin ditu.

CLITOCYBE SQUAMULOSA

DESKRIBAPENA: neurri ertaineko espeziea da, batzuetan txapelak 8-10 zentimetro izan ohi ditu. Hasieran ganbila da, gero lautua, baina oso zilborduna edo inbutuaren formakoa eta ertza hasieran biribilkatua du eta geroago zuzena eta kanaltsua. Bere kutikula arre gorrixka kolorekoa da, ezkata txikiz estalia, batez ere erdigunean. Orriak hertsiak, makurrak, dekurrenteak, hasieran zurixkak, gero beix margul kolorekoak.
Hanka, 6-8x0.3-0.4 zentimetrokoa, txapela baino margulagoa da, oinaldea ia erraboilduna eta mizelio-masa zuri batek estaltzen du oina eta luzekako zuntzexka batzuek gainerakoa. Espora leunak, larmiformeak, hialinoak eta ez amiloideak.

HABITATA: udan eta udazkenean ateratzen da belar artean, konifero-basoen ertzetan eta argigunetan. Ez da perretxiko arrunta Euskal Herrian.
JANGARRITASUNA: mami zurixka, gogorra, elastikoa eta mehea. Kolorea eta usaina irinaren antzekoak edo.

ERROTARIA
(Clitopilus prunulus)

DESKRIBAPENA: perretxiko honen txapelaren diametroak 3-10 zentimetro du. Txapela oso hauskorra da, eta hasieran ganbila, baina gero lautu egiten da, eta azkenik Clitocybe moduan erditik sartua. Txapeleko ertza biribilkatua da ale gaztea denean, baina ale heldua bada, irregularra eta uhindua. Txapeleko azala lehorra eta matea da, kolore zuria, eta batzuetan grisa erdialdean. Orriak oso dekurrenteak dira, hasieran zurixkak eta gero, esporak helduak direnean, arrosak. Hanka motz, zuri eta matea du, eta askotan eszentrikoa. Espora arrosak, fusiformeak albotik ikusita eta angeludunak aurretik begiratuta.
Ugaria da eta jendea hasi da jaten, baina kontuz ibili behar da, aise nahasten baita *Clitocybe dealbata* eta *Clitopilus rivulosa* pozoitsuekin. Hauek leku berdinetan ateratzen dira, eta askotan elkarrekin. Dena dela, desberdintasunak badituzte: *Cliptopilus prunulus* hauskorra da, irin usain nabarmena du eta orriak oso dekurrenteak dira, eta ale heldua bada, arrosak. Clitocybe pozoitsuak berriz, elastikoak dira, usaina ahulagoa dute, irina eta anisaren artekoa, eta orriak ez dira hain dekurrenteak eta arrosak, krema-zurixkak baizik.

HABITATA: oso perretxiko arrunta da udan eta udazkenean, belar artean, hostozabal desberdinen azpian ateratzen da, askotan Boletus jangarri klasikoekin batera. Perretxikozale askok *"txibato"* izenez ezagutzen dute, beren ustez, ez baitira hauetatik oso urruti egoten *"onddo"* preziatuak.
JANGARRITASUNA: mami zuria, oso biguna eta hauskorra. Irin freskoaren usain eta zapore nabarmenak.
Jangarri bikaina.

CLITOCYBE PHAEOPHTHALMA

DESKRIBAPENA: neurri txikikoa da, bere txapelak 4-6 zentimetroko diametroa baitu, hasieran ganbil laua da, gero zertxobait lautua, erdigunea zilbor-formakoa eta ertza oso biribilkatua. Kutikula leuna, matea, zetatsua eta higrofanoa, beix eta okre kolorekoa eguraldi hezea denean eta zurixka zikina edo grisaxka lehorra denean. Orri makurrak, dekurrenteak, hertsi samarrak, tartekatutako orri ugari, hasieran zurixkak, eta gero, heltzean, okreak. 4-6x0,4-0,7 zentimetroko hanka, zilindrikoa, oinalderantz estutua eta puntan amaitua, azala luzekako zuntzexka finez estalia eta krema edo beix kolorekoa eta oinaldea, mizelioaren eraginez, kotoitsu zuria. Esporak amigdaliformeak, leunak, hialinoak eta ez amiloideak.

HABITATA: uda-udazkenean ateratzen da humus asko duten lurretan, gehienetan hostozabalen azpian, baita koniferoen azpian ere, baina gehienetan pagadietan. Espezie arrunta da Euskal Herrian.
JANGARRITASUNA: mamia mehea, elastikoa, zurixka, zapore gozokoa baina mingotsa eta usaina nahiko berezia, sarkorra eta txarra, Romagnesiren esanetan *"oilategi"*koa, eta nolabait *Clitocybe* nebularisena gogorarazten digu, baina arrainarekin eta ranzioarekin nahastuta.

JOIKI ARRUNTA
(Clavariadelphus pistillaris)

DESKRIBAPENA: karpoforo edo errezeptakulu bakuna du eta 7-25 zentimetroko altuera. Klabiformea eta mamitsua da eta azala andatua, lehorra eta leuna, baina zaharra denean zimurtua. Goialdean gehienetan biribildua da, oso gutxitan moztua. Ale gazteek kolore hori okrea dute, baina gero zahartzerakoan, ardan marroira aldatzen dira. Himenioa azal guzian zehar hedaturik dago. Gaztea denean mami gogorra du eta gero biguna. Espora horixka leun eliptikoak ditu, oso handiak.

Clavariadelphus truncatus antz handikoa da, baina honek ez du bukaera biribildua bakarrik, zimurtua ere bai baizik, eta guziaz gain, zapore gozoa du eta izaien azpian ateratzen da.
HABITATA: udazkenean ateratzen da talde handiak osatuz leku hezeetan, hostozabalen basoetako orbelaren gainean. Oso espezie arrunta da.
JANGARRITASUNA: bere zapore mingotsarengatik ezin da jan.
Mamiaren kolorea zurixka da, baina iluntzeko joera du, eta zaporea mingotsa. Ez da usainik nabaritzen.

KOLIBIA GURINKARA
(Collybia asema)

DESKRIBAPENA: txapelak 7 zentimetrorainoko diametroa du. Hasieran ganbila eta gris-horixka da eta gero, zahartu eta lehortu ondoren, zurbilagoa. Txapeleko azala leuna, distiratsua eta higrofanoa da eta ertzean gardenki ildaskatua. Orriak hertsiak, zabalak eta hari batez dekurrenteak dira, zurixkak baina barnea grisa. Hanka gris hori iluna da, zurbilagoa goialdean eta goitik behera luzetarako zuntzeska ilunez erabat estalia. Beheko aldean zuntzeska hauek ildaskatuak dira. Oinalde erraboilduna, arola edo kofatua barnetik eta zurixka kanpotik. Espora zuri, leun, ez-amiloide eta eliptikoak.

Genero berdinekoa den *Collybia butyracearen* txapela ilunagoa da, marroi-gorrixka iluna gutxi gorabehera. Hanka leuna du, beheko aldean ildaskatu gabea eta koniferoen azpian ateratzen da eskuarki, lur azidoetan.
Oraintsu arte, *Collybia butyracearen* barietatetzat hartzen zen perretxiko hau, baina gaur egun, espezie desberdina da mikologo askorentzat.
HABITATA: oso arrunta da Euskal Herrian, uda-udazkenean ateratzen da hostozabalen basoetan, batez ere pagadietan, eroritako hostoen gainean, lur aberats eta neutroetan.
JANGARRITASUNA: ez da jangarria.
Mami mehe eta zurixka, baina txapeleko azal azpian grisa, eta hanka aldean zuntzezkoa. Zapore geza du eta fruta usaina dario.

KOLIBIA HANKABIHURRIA
(Collybia distorta)

DESKRIBAPENA: txapelak 10 zentimetrorainoko diametroa du. Hasieran kanpai formakoa eta irregularra da, eta gero laua. Ertza zorrotza da, uhindua eta biribilkatua. Txapeleko azala matea da. Bere kolorea marroi-gorrixka da ale hezea baldin bada, baina heldua eta lehorra denean marroi-okrea. Orri mehe eta hertsiak ditu, beren kolorea zurixka da eta batzuetan orban marroi-gorrixkak ditu. Hanka luzea, zilindrikoa eta okerra, barnetik kofatua. Bere kolorea zurixka da eta barnetik arregorrixka. Kanpoko azala ildaskatua da eta batzuetan bere luzera guzian bihurritua. Espora zuri, ez-amiloide eta ia esferikoak.

Oso erraza da ezagutzea, bai ateratzen den lekuagatik eta baita forma eta kolorearengatik ere, baina bihurritzerakoan batez ere, ez baita hausten, berriro lehengora itzultzen baizik. Halaber, orriek sulfato ferroso disoluzioa tarte baten bidez kolore gorrixka hartzen dute. Collybia maculata talde berdinekoa da, baina handiagoa, bere txapela zuria den arren, herdoil koloreko orbanak ditu.
HEDAPENA ETA HABITATA: udazkenean agertzen da taldeka edo zirkuluka, askotan oinetatik itsatsiak, koniferoen basoetan eroritako orratz-hostoen gainean. Perretxiko hau ez da arrunta.
JANGARRITASUNA: ez da jangarria.
Mami mehe eta zurixka du, arre-gorrixka txapelaren azal azpian. Zapore geza usain txarrekoa.

MARASMIO MORDOSKATUA
(Collybia confluens)

DESKRIBAPENA: txapel txikia du, gehienez 5 zentimetroko diametrokoa, hasieran ganbila edo ezkila formakoa, gero lauagoa. Txapeleko azala leuna eta zetakara da, kolore beixekoa. Ertza zurbilagoa da, uhindua eta ildaskatu antza. Orriak oso hertsiak ditu, hasieran zurixkak, gero arrosagoak eta orri-ertzean zilio edo ile txiki-txikiak, eta azkenik andatu antzak edo oso andatuak. Hanka kofatua, luzea eta lerdena, batzuetan zilindrikoa, besteetan sakatua. Bere kolorea txapela baino ilunagoa eta lauso zurixka eta lilaz estalia, batez ere oinaldean. Espora zuriak, malko formakoak. Zistidio asko ditu.
Perretxiko hau aise ezagutzen da, sortatan ateratzen baita, eta aurretik esandakoaz gain, beste ezaugarri bat ere badu: txapela aise kentzen zaio eta hankaren muturrak zona askoz zabalago bat uzten du. Antz handiko beste perretxikoa Marasmius wynnei da. Leku berdinetan ateratzen da, eta hau ere multzoka, baina azken honek kolore morea du, bai txapelean eta bai orrietan, bere hanka zuria da, beheko aldetik gorria eta marroi tartean, eta guziaz gain, orriak oso bakanak dira.
HEDAPENA ETA HABITATA: perretxiko arrunta da Euskal herrian. Uda-udazkenean ateratzen da, gehienetan pago azpian, eta oso gutxitan koniferoen azpian, eroritako hosto eta orratzen gainean, multzo txiki hertsitan, batzuetan lerroka eta besteetan sorginen korroetan leku ilun eta zikinetan.
JANGARRITASUNA: ez da jangarria. Mami mehe eta larrukara. Usain atsegina eta zapore geza.

HARITZ-MARASMIOA
(Collybia dryophila)

DESKRIBAPENA: txapela hasieran ganbila, gero laua eta askotan altzoduna, eta 7 zentimetrorainoko diametroa du. Txapeleko azala leuna, matea, higrofanoa, laranja-okre kolorekoa batez ere erdialdean, eta zurbilagoa ertz aldean. Orri mehe, ia libre, hertsi eta krema-zuri kolorekoak. Hanka mehe, zilindriko, sendo eta kurruskairea. Kolore okre-laranja du, argiagoa goialdean, eta oinalde erraboilduna. Ale helduek hanka kofatua dute. Espora zuri, ez-amiloide eta eliptikoak.
Var. Funicularis mikologo batzuentzat espezie desberdina da eta *Collybia luteifolia* Gill.
Izena ematen diote. Azken hau udaberrikoa da eta orri sufre-horiak ditu, ez zuriak, eta txapel gorrixka-marroia. Marasmius oreades jangarriarekin ere nahas liteke, baina honek leku desberdinak aukeratzen ditu, mendiko larreetan ateratzen baita, eta orriak lodiagoak dira gainera eta beraien artean desberdinak.

HABITATA: Euskal Herriko perretxikorik arruntenen artekoa da. Ekainetik aurrera Azarora arte ateratzen da talde trinkotan hostozabalen edo koniferoen hostoen gainean, eta oso gutxitan ihartutako haritz edo beste hostozabal eta koniferoen egur zatietan.
JANGARRITASUNA: jangarri kaxkarra, bai gustuagatik eta baita mamia mehea eta zuntzezkoa delako ere.
Mami mehe, zurixka eta zuntzezkoa. Usain ahula, baina atsegina, eta zapore geza.

COLLYBIA HARIOLORUM

DESKRIBAPENA: perretxiko txiki edo ertaina da, txapelak 3-5 cm-ko diametroa izan dezake, hasieran kanpai formakoa da, gero ganbila eta laua eta azkenik ertza barrualderantz zertxobait biribilkatua, eta giro hezean ildaskatua. Azal leuna, matea, kolorea gamuza-argi eta arre-gorrixka artekoa, erdialdea, berriz, ilunagoa. Orri hertsiak, meheak, itsatsiak edo erdi askeak, kolorea, berriz, zuria edo krema. Hanka 4-6x0,3-0,6 zentimetrokoa, zilindrikoa, oinaldea lodixeagoa, ale berrietan betea, helduetan hutsa, gamuza-argi kolorekoa, goiko punta, ostera, zurixka eta leuna; oina, ilaunduna eta arrexka-gorrixka. Espora eliptikoak, leunak, gardenak eta ez amiloideak.

HABITATA: udaberritik udazkena arte ateratzen da, erdi usteldutako pago-hostoen artean, pagadietako leku laiotz eta hezeetan. Espezie arrunt samarra da gure Herrian.
JANGARRITASUNA: mami zuria, zurixka eta kartilagotsua hankan, aza ustel, edo Camambert gazta usain txarra dariona; zaporea, berriz, gozoa baina atsegina ez, azaren hostoena gogorarazten baitigu.

KOLIBIA MARROIA
(Collybia fusipes)

DESKRIBAPENA: txapela irregularra du, uhindua eta konkorduna, eta 10 zentimetrorainoko diametroa. Hasieran marroi-gorrixka da, baina zahartzerakoan eta zurbilagoa, eta herdoilezko orbanez tindatutako haragi kolorea hartzen du. Orriak erdi bakanak dira, lodiak, uhinduak, ia libreak, zurixkak alea gaztea denean, baina herdoilezko orbanez nahasitako haragi kolorekoak gero. Hanka osoa marroi-gorrixka, baina goialdean zurbilagoa, eta luzetarako ildoak ditu goitik beheraka. Espora leun, zuri, ez-amiloide eta eliptikoak.

HABITATA: perretxiko hau arrunta da. Maiatzetik aurrera ateratzen da talde txikitan oinetatik loturik haritzen eta pagoen enborren oinak parasitatuz.
JANGARRITASUNA: txapeleko mamia mehea da. Zapore geza du eta lizun usain pixka bat dario. Jangarri kaxkarra da. Ale gazteen txapelak bakarrik jan daitezke baina ez zaharrenak, usteldu gabe asko irauten baitute, eta kakeria eragin duten pozoidura asko gertatu da Europako leku desberdinetan. Zorionez Euskal herrian ez da horrelakorik gertatu, hemen ez baita jaten.

COLLYBIA MACULATA

DESKRIBAPENA: perretxiko ertaina da; txapelak 8-12 zentimetroko diametroa izan dezake, hasieran hemisferikoa, gero ganbila; ertza mehea eta kurbatua. Azal leuna, matea, hasieran zuri-zuria, gero herdoil-okre kolorez zikindua, batez ere erdialdean. Orri hertsiak itsatsi askeak, hasieran zuriak, gero zuri horixkak, herdoil-okre kolorez zikinduak; ertza oso horztuna. Hanka 9-12x1-3 zentimetrokoa, zilindrikoa, gogorra; hanka-azala, ostera, leuna, matea, zuria, zahartu ahala herdoil-okre kolorea hartzeko joera duena, hodi formakoa, hau da, labana batekin zeharka moztuz gero barrualde hutsa erakusten duena. Arrautza-formako esporak, leunak, gardenak eta destrinoideak.

HABITATA: uda-udazken aldean ateratzen da, talde soro-pilduetan, orratz eta eroritako hosto erdi usteldun artean, konifero-basoetan edo baso mistoetan. Nahiko espezie arrunta da gure Herrian.
JANGARRITASUNA: mami gogorra, hezea, lodia eta kolore zurikoa, usain ahulekoa, ez oso atsegina, eta hasieran zapore gozokoa gero mingosten bazaio ere.

COLLYBIA MARASMIOIDES

DESKRIBAPENA: txapela txiki antzekoa du, eta 5 zentimetroko diametroa izan dezake; hasieran ganbila da, gero, nolabait lautua, ondulatua eta izurtsua, eta azkenik ertz goratuak izaten ditu, erdialdea sartu eta ertza ildaskatu samarra. Txapela higrofanoa, kolore okre-arrexkakoa, arrosa koloreko isla eta guzti, erdialde ilunagoa, lehortearekin zurbiltzen bada ere. Orriak hertsi samarrak ditu, zabalak, itsatsiak, altzodunak,

meheak, batzuk erdibituak, hasieran zurixkak, gero, heldutasunean, krema kolorekoak. Hanka 3-6x0,2-0,5 zentimetrokoa, zilindrikoa, batzuetan zapaldua, ondulatua, elastikoa, barrutik hutsa; hanka-azala, berriz, zetakara, matea, kolore arre-gorrikoa; goiko punta zurbilagoa, eta oina ilunagoa eta bilo gorriztaz estalia. Espora eliptikoak, leunak, gardenak, eta ez amiloideak.
HABITATA: uda-udazken aldean ernetzen da hostozabal basoetan, egur erorian eta ustelduan batez ere, edo motzondoetan. Espezie arrunt samarra da Euskal Herrian.
JANGARRITASUNA: mami mehea, biguna, zuria, ia usainik gabea eta zapore gozokoa.

COLLYBIA PERONATA

DESKRIBAPENA: perretxiko hau txikia edo ertaina izan ohi da, eta txapelak 6 zentimetroko diametroa izan dezake; hasieran ganbila da, gero ganbila eta laua; ertza, berriz, leuna, zorrotza eta kurbatua. Azala, matea, zetakara eta erradialki zuntzexkatsua, kolore arrexka-gorrixka edo arrexka-horixka eta erdialdea ilunagoa. Orri bakanak, meheak, hankatik etenak; kolorea, berriz, arrexka eta okre-horixka tartekoa; ertzak, zurbilxeagoak. Hanka 6-8x0,3-0,5 zentimetrokoa, zilindrikoa, oin sendoagokoa; hanka-azala, berriz,

luzaran zuntzexkatsua eta txapelaren kolorekoa; hankaren behealdea -*"galtzerdi"* baten antzera-, kolore horiko mizeliohifa motz tenteez estalia. Espora eliptikoak edo fusiformeak, leunak, gardenak eta ez amiloideak.
HABITATA: uda-udazken aldean ateratzen da hosto edo orratz erorien artean, hostozabalez edo koniferoz osatutako basoetako leku hezeetan, eta batez ere pagopean. Espezie arrunta da Euskal Herrian.
JANGARRITASUNA: mami zurixka eta horixka tartekoa, mehea eta zuntzezkoa hankan, zaporea, berriz, mingarra eta usaina, igurtzi ondoren, ozpinarena.

BELDAR MAZOA
(Cordyceps militariss)

DESKRIBAPENA: onddo interesgarri hau intsektuen larba eta krisalidei eraso eta birrintzeko espezializatu da, pinuaren prozesionariaren krisalida batez ere. Horregatik, gure pinudiei aldizka erasotzen diren izurri honen aurkako arma biologikoa dugu. Sexu jotzeaz geroztik, prozesionariak arrautzak erruten ditu, 120 eta 300 aldiko. Larba jatunak jaiotzen direnean, zetazko behin-behineko habia egiten dute eta orratz-hostoen zati guriak bakarrik jaten hasten dira. Helduak izateko 5 estadiotatik pasatzen dira. 3. Estadioan behin betiko habia egiten dute eta ile erresumingarriak ateratzen zaizkie. Ile horiek jaurtiki egiten dituzte larba mugitzen denean. 5. Estadioan negualdia iragaten dute, edo, baldintza egokiak izanez gero, lur azpian sartzen dira metamorfosia egiteko. Lurperatzera doazenean prozesio moduko errenkak egiten dituzte eta, lekua aukeratu eta gero, sartu egiten dira. Orduan, beldar bakoitzak bere kiti-

nazko zibota egiten du, bertan itxirik gelditzu. Fase honetan hilabete baino gutxiagotik lau urte arte (diapausa) iragan dezakete, baldintzen arabera. Baldintza egokiak baldin badituzte, tximeletak ateratzen dira, eta ziklo berriari ekiten. *Cordyceps* militarisek, bada, beldarrak zibota moduan krisalida bihurtzen direnean eraso egiten die eta hauen gorputzean zehar garatuz, momia moduan uzten ditu, barnean mizelioa eta kanpotik kitinazko estaldura dutela. Horrela zikloa jarraitu ezinik uzten ditu. *Cordyceps militari*sen fruktifikazioak klabiformeak dira, gorri-laranjak eta 1-5 zentimetrokoak. Esporak edukitzen dituzten garatxoz estalirik daude. Esporak filiformeak eta trenkatuak dira. Trenkada hauetatik zatituz, hondatzeko boterea biderkatu egiten zaie.
JANGARRITASUNA: ez da jangarria.

COLLYBIA AQUOSA

DESKRIBAPENA: txapela: 3-6 zentimetroko diametroa duena. Ganbila, gero laua, irregularra, kolore aldakorrekoa, horia, hori-okrea edo hori argia.
Orriak zuriak edo krema-zuriak, meheak, estutuak eta libreak.
Hanka txapelaren kolorekoa, fistula-itxurakoa, mehea, sendoa, bukaeran esklerozioa duena. Horixe da espezie hau Collybia dryphila espeziearengandik bereizten duen ezaugarri argia.
Haragia mehea, zuria, nabaritzeko moduko usain eta zaporerik gabekoa.
HABITATA: udazkenetan hostolaudiak. Argazkiko espeziea udaberrian agertu zen.
Nahasten zaila da hankaren oinarriko esklerozio hanpatuarengatik. Arraroa da baina Bizkaian agertu ohi da. Alabaina, beste alde batzuetan aurkitzen zaila da.
JANGARRITASUNA: balio urriko jangaia.

URBELTZ MIKADUNA
(Coprinus micaceus)

DESKRIBAPENA: bere ezaugarri nagusia, ale gaztea denean, txapeleko kupulan du. Hor, gainetik, mika-distira duten pikor zurixka-horixkak ikus daitezke. Txapelak 2-5 zentimetroko diametroa du. Hasieran arrautza forma du eta gero ezkila forma. Txapeleko azala oso ildaskatua da, herdoil-okrea, eta gainetik mika-distira duten errezel zuriak utzitako kondarrak ditu. Orriak estuak dira, libreak, hasieran zurixkak, gero marroiak eta azkenik beltzak, tintazko bihurtzeko. Hanka mehea, zurixka eta zetakara, eraztunik gabea.

Mami mehe eta hauskorra. Usainik ez. Espora beltz eliptikoek poro germinala dute.
Badira hau bezalako espezie batzuk, antz handikoak eta makroskopikoki bereizten oso zailak: *Coprinus saccharinus, Coprinus truncorum, Coprinus pallidissimus, Coprinus rufovelatus,* eta abar.
HABITATA: espezie hau Coprinus generokoa da, Micacei sekzioko perretxikoetan arruntena. Neurri txikikoa nolabait, multzo trinkotan ateratzen da udaberritik, udazkenaren bukaera arte, usteldutako enbor edo motzondoen gainean edo inguruan.
JANGARRITASUNA: perretxiko honek ez du jateko balio, eta batzuentzat susmagarria da gainera, Urbeltz gorritzailea espezieak eragindako ondorio berdinak ditu, baina ez hain larriak.

URBELTZ UGARIA
(Coprinus disseminatus)

DESKRIBAPENA: txapel mehe eta txikia. Bere diametroak 2 edo 3 zentimetro du gehienez. Hasieran txapel esferikoa da eta gero arrautza edo ezkila formakoa, baina behin ere ez laua. Txapeleko azala buztin-krema kolorekoa, baina zahartzerakoan ilundu egiten da, eta ildo sakon erradial asko ditu. Orri andatuak, batzuetan besteetan baino bakanagoak, hasieran zuriak, gero ilunak eta azkenik arre-beltzak, baina urtzen ez direnak. Hanka mehea da, motza, hauskorra, askotan oinaldetik kurbatua eta lupaz begiratua iletsua. Esporak marroi-purpura ilunak dira, txikiak, leunak eta eliptikoak, eta poro germinala dute.
Psathyrella pygmaea espezieak antz handia du, eta gainera leku berdinetan multzoka ateratzen da, baina txapela txikiagoa du, orri hertsiagoak eta espora txikiagoak.
HABITATA: oso erraza da Coprinus hau ezagutzea. Udaberritik aurrera ateratzen da, ehunka perretxiko talde berean, leku heze eta laiotzetan, lur azalean batzuetan, baina hostozabalen egur usteletan edo inguruan, egur ustela lur azpian egon baitateke.

JANGARRITASUNA: perretxiko txiki hau ez da jangarria, ez baitu ia deus ere jateko.
Mami mehea, ia gabea. Usainik ez.

URBELTZ GALPARDUNA
(Coprinus comatus)

DESKRIBAPENA: txapelak 10-15 zentimetroko altuera du. Hasieran txapel zilindrikoa da eta gero ezkila formakoa. Txapeleko azala zuria da, zuri eta okre-zuriaren tarteko ezkata iletsu edo artiletsuz estalia. Zahartzerakoan, ertza belzten hasten da eta gero txapel guztira hedatzen. Orriak libreak dira, hertsiak, goranzkoak, hasieran zuriak, gero arrosa-zuriak eta azkenean beltzak, tintazko bihurtzeko. Hanka luzea eta kofatua da, eta oinaldea erraboilduna, eta azala hasieran zuntzeskatsu eta zuria du, baina gero biluzia eta leuna. Goialdean eraztun estu, zuri eta mugikorra du. Batzuetan oineraino irristatuz mugi daiteke baina beste batzuetan desagerturik egon daiteke. Esporak beltzak eta eliptikoak dira poro germinala dute. Jangarri fina da, gustu berezikoa beste perretxikoekiko, baina beti ale gazteak bildu behar dira, inongo kolore beltzik gabeak. Zenbait baldintzatan pozoitsua den Coprinus atramentarius-ekin nahas liteke, baina honen txapela tolesak egina da, grisa eta ezkila formakoa, ez zilindrikoa, eta ez da iletsua.
HABITATA: udan eta udazkenean ateratzen dira, ale asko batera. Talde handi hauek bide eta errepide ertzetan ikus daitezke eta, oro har, animalien kaka dagoen lekuetan.

JANGARRITASUNA: mami hauskor eta zuria gaztetan, baina alea heldua denean belzteko joera du. Usainik ez.
neurri ertain eta handiaren arteko perretxiko hau jangarri bikaina da eta asko izaten da. Hala ere, Euskal Herrian oso gutxi jaten da. Arazo bakarra, jaso eta berehala frijitu behar izatea da, bestela galdu egiten dira, bere orriak belztu ondoren, urtu egiten baitira. Horregatik, ia ezinezkoa da bere salmenta.

URBELTZ ARGALA
(Coprinus plicatilis)

DESKRIBAPENA: Coprinus txiki *"efimero"*en (ordu gutxitan zimeltzen direnak) artean arruntena hau da. Txapela oso xehea da, hasieran obalzilindrikoa, gero konikoa, eta azkenik, heldua denean, laua eta erdialdean sartu antza. Zabalera osoa 1-2,5 zentimetrokoa da. Txapeleko azala sarrio kolorekoa da, eta leuna gaztea denean, lautu baino lehen, baina gero grisaska-zurbila eta oso ildokatu edo ildaskatua, eta erdian kanela-marroi koloreko zapalunea. Orri bakanak, hankatik aldendutako eraztun edo "kolarium" bateraino ailegatzen dira, hasieran kolore gris-zurbilekoak, gero beltzak eta azkenean beltzak. Hanka mehe eta hauskorra, kolore zurixka eta okre-grisaskaren artekoa. Oinaldean erraboila du. Esporak beltzak dira, dilista formakoak edo angeludun ia esferiko antzak.
Badira, mikroskopiorik gabe bereizten zailak diren elkarren antz handiko Coprinus txiki batzuk: Coprinus auricomus, *Coprinus leiocephalus, Coprinus hemerobius,* eta abar.
HABITATA: udaberritik udazkenaren bukaera arte ateratzen da, bakarka edo multzo txikitan, beste bat edo birekin batera, soropil, belardi edo larreetako belar gainean eta belardun bide ertzetan.
JANGARRITASUNA: argi dago, bere neurria eta mami mehea direla eta, ez dela jangarria.
Ia mamirik gabeko perretxikoa da. Ez du ez usainik, ez zaporerik. Ez da ia urtzen. Orribeltz arrautzerdia.

URBELTZ GORRITZAILEA
(Coprinus atramentarius)

DESKRIBAPENA: txapela arrautza formakoa da eta bere diametroak 2-6 zentimetro du. Txapeleko azala, erradialki tolesak egina, satinatua eta zetakara da, kupulan ezik, hor ezkata txiki okrez estalirik baitago, eta bere kolorea hasieran zurixka da, gero grisa-horixka eta azkenik gris-beltza. Orri libre, sabeldun eta hertsiak, hasieran zuriak eta gero beltzak, tintazko bihurtzeko. Hanka luzea da, kurbatua beheko aldetik, kofatua, leuna eta kolore zurikoa. Eraztun hauskorra du, ez-osoa eta desagerkorra, eta oinaren aldamenean dago. Mami mehe eta hauskorra, kolore grisekoa. Usainik ez. Espora beltz leun eliptikoak. Antz handiko C. Romagnesianua Sing. espeziearekin nahas liteke, baina kolore marroi samardun grisa da, beste ezaugarri makroskopikoen artean. Dena dela, batzuentzat espezie beraren barietatea besterik ez da.

HABITATA: *Coprinus* hau udaberritik aurrera aurki daiteke lurrean multzo trinko eta hertsitan, motzondo eta lurperatutako egur ustelen inguruan, belardi, parke eta zelaietan edo bide ertzetan.

JANGARRITASUNA: jangarrien artean sartzen da, baina janez gero, ezin da 2 edo 3 egunetan edari alkoholdunik edan. hona hemen ongi ezagutu behar den neurri ertaineko beste *Coprinus* bat, zenbait baldintzatan pozoitsua baita, aurreko espeziearen azalpenean esan dugun bezala, eta erraza da Urbeltz kalparduna jangarri horrekin nahastea. *Coprinus atramentarius* hau edari alkoholdunekin batera jaten bada, *"sindrome kopriniko"* izenez ezagututako ondorioa jasaten da. Sindrome hau, alkoholdunak sendatzeko erabiltzen den *"Antabuse"* deitutako botika-produktuak eragindako ondorioen antzekoa da. Horren bidez, gorputza gorritu egiten da, taupadak azkartu eta izerdia, buruko mina eta goragalea eragin erazten ditu.

CLITOCYBE UMBILLICATA

DESKRIBAPENA: neurri txikiko espeziea da, txapelak 4-6 zentimetroko diametroa izan dezake. Txapela hasieran ganbila da eta une berean zilborduna, gero lautu samarra eta azkenik sartua eta erabat inbutu formakoa, ertza biribilkatua eta leuna, baina batzuetan zertxobait ildaskatua; kutikula leuna, higrofanoa, grisaxka-ilun kolorekoa eguraldi hezea denean eta arrexka edo beixa lehorra denean. Orriak oso dekurrenteak, zabalak, hertsiak, zurixka zikinaren eta beix grisaxkaren artekoak. Hanka, 4-6x0,3x0,5 zentimetrokoa, luzea, zilindrikoa, oinalde lodikoa, kurruskatsua, hasieran betea eta gero barrutik hutsa, azala higrofanoa, txapelaren kolorekoa, zuntzexka finez estalia, luzekakoak eta zetatsuak. Puntan koro zuri berezia du eta behealdean mizelio-konglomeratua. Espora eliptikoak, leunak, hialinoak eta ez amiloideak.

HABITATA: uda-udazkenean ateratzen da hostozabalen edo koniferoen basoetan, batez ere pagadietan. Nahiko espezie arrunta da Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: mami zurixka, elastikoa eta mehea, zapore gozoa baina ezatsegina eta batere usainik gabea edo pixka bat nitroarena.

URBELTZ ZURI BELTZA
(Coprinus picaceus)

DESKRIBAPENA: handia da, bere txapelak 10 zentimetrorainoko diametroa izan dezake. Hasieran arrautza-formakoa edo konikoa da, gero kanpai-formakoa eta azkenik kanpai-formakoa baina ertzak gorantz jiratuta. Horretaz gainera, mehea eta hauskorra da, hasieran ia erabat mintzezko geruza hauskor batek estaltzen du, kolore zurikoa eta errezel nagusitik datorrena; txapela haztean txikitu edo zartatu egiten da plaka irregularretan, zuriak eta erorkorrak, eta tartean beltz-arrexka koloreko hondoa ikus daiteke. Orriak libreak dira, goranzkoak eta sabeldunak, hasieran zuriak dira, gerora arrexka-arrosara aldatuz eta azkenik, esporak heltzean, beltz eta urtubera bihurtzen dira. Hanka luzea da, 25x2, hauskorra, barrutik hutsa, oinaldean erraboilduna eta azal leuna, haustuna edo matazatua, hasieran zuria, zurixka-arrexkara aldatzeko joeraz.

HABITATA: uda-udazkenean ernetzen da hostozabal baso hezeetan, batez ere pagadietan, banaka edota 2-3 aleko txikietan landare-lurraren edo humusaren gainean.
Espezie arrunta da Euskal Herrian

JANGARRITASUNA: ez da jangarria. Mamia mehea, hauskorra eta kolore zurikoa da, zaporea gozoa eta usaina txarra, brearen antzekoa, batez ere helduetan.

SAREOKRE EZTATATSUA
(Cortinarius humicola)

DESKRIBAPENA: txapelak 2-7 zentimetroko diametroa du. Ale gazteek txapel konikoa dute eta gero laua edo ia laua. Txapeleko azala lehorra da, ez-higrofanoa, kolore okre-hori eta urre-okreen tartekoa, ezkataz estalirik. Txapeleko ezkata hauek lehoi-ilun kolorekoak dira eta bihurritu samarrak edo oso bihurrituak. Orri lodi, bakan eta andatuak, kolore okre-horikoak, baina gero, zaharragoak direnean, herdoil-marroira aldatzen dira. Hanka trinko, luze, uhindu eta sustraitzailea du, txapelaren kolorekoa eta ezkatatsua goialdean ezik, alde honetan leuna baita.

Esporak herdoil-marroiak, eliptikoak eta, Cortinarius guziak bezala garatxodunak.

Pholiota squarrosa espeziearen antz handia du, honen formak nanoa baitirudi, baina azken hau txikiagoa izateaz gain, hankan eta txapelean ezkatatsuagoa da, hankan eraztuna du, eta esporak txikiagoak eta leunak dira, ez garatxodunak. Beste perretxiko hau beranduago ateratzen da gainera, talde trinkotan, konifero edo hostozabalen egur usteletan edo enborren oinetan.

HABITATA: bakarka edo taldeka ateratzen da binaka edo hirunaka kare-lurretako pagoen azpian. *Cortinarius* honek *Pholiota* itxura du eta Euskal Herrian nahiko arraroa da.

JANGARRITASUNA: ez du jateko balio.

SARE HILTZAILEA
(*Cortinarius orellanus*)

DESKRIBAPENA: *orellanus* izena *"orella"* izeneko landare batek damaio, espainolak Amerikara ailegatu zirenean, Karibeko indioek landare honen aleetatik ateratako hautsa aurpegia pintatzeko erabiltzen baitzuten. Espezie honen txapela ganbila da, laranja-marroi kolorekoa, unbonatu antza, zuntzeskatsua eta lehorra. Orriak aski bakanak, laranja kolorekoak hasieran eta kanelak gero. Hanka horixka da, lodi samarra baina beheko aldetik ez hainbeste. Gaztea denean gortina du, baina gero desagertu egiten zaio. Esporak herdoil-marroiak eta garatxoz beterik. Almendra itxura dute.

Badira honen antzeko beste Kortinarius batzuk (*Cortinarius cinnamomeus, orellanoides, semisanguineus, phoeniceus,* eta abar), denak hilgarriak.
HABITATA: uda-udazkenean bakarrik aurkitzen da, silizezko zoruetan, hostozabalen azpian. Ez da arrunta.
JANGARRITASUNA: perretxiko hau janez gero hiltzeko arriskua dago baina sintomak ez dira berehala azaltzen eta 3 edo 14 egun pasa daitezke hauek agertu arte. Bere eskasia eta itxura txarra direla eta, Euskal Herrian ez da hildakorik gertatu orain arte.
1953 arte Cortinarius hau jangarrien artean sailkatua zegoen. Urte horretan, Poloniako herrixka batean ehun pertsona baino gehiago pozoitu ziren perretxiko hau jaterakoan, eta haietako hogei bat hil.
Mamia horixka da eta arbi usaina du.

CORTINARIUS ALEURIOSMUS

DESKRIBAPENA: txapela 12 zentimetroko diametroa eduki dezake, hemisferikotik ganbilera, mamitsua, zuria edo apur bat arrosa kolorekoa, gainazal likatsua, ertz biribilkatua.
Orriak estuak, laminatxoekin, itsagarriak, zurixkak,

gaztetan okre zuriak, zahartzaroan arre burdintsuak. Gortina zuria, ugaria ale gazteetan.
Oina zilindrikoa, ertzeko erraboilarekin, zurixka.
Mamia zurixka, lodia, irin usainarekin, mingotsa.
Euskal Herriko ohiko *Cortinariu*s da, zuria, mamitsua oso lodia eta zuria dauka, gaztetan.
HABITATA: hostozabalen basoak, udazkenean, batez ere artadietan.
JANGARRITASUNA: ez da jangarria.

CORTINARIUS TORVUS

DESKRIBAPENA: txapelak 4-10 zentimetroko diametroa du eta hasieran hemisferikoa da, baina gero ganbila. Txapeleko azala zatakara da, kolore marroi-moreskakoa, eta zuntzeska erradial grisaz estalia. Zuntzeska hauek ertza gainezkatzen dute eta horrela orriak pixka bat estaltzen. Orriak bakanak eta lodiak dira, hasieran marroi-moreskak, baina gero, zaharragoak direnean, herdoil-marroiak. Hanka mardul, luze, okerra eta zilindrikoa. Goialdean zetakara eta morea du, eta oinaldean erraboilduna, eta oinetik eraztuneraino magina mint-

zaire estu lila-zurixkak inguratzen du. Goranzko eraztuna du, zurixka, iraunkor eta nabaria. Esporak eliptikoak eta garatxodunak dira, herdoil-marroi kolorekoak.
Cortinarius generoa ikertzeko zailenetakoa da, espezie pila baitu (1.200 inguru), eta haien arteko askok elkarren antz handia dute gainera. Hala ere Cortinarius torvus ezagutzeko ez da behar, ez erreaktiborik, ez mikroskopiorik
HABITATA: uda eta udazkenean ateratzen da silize-lurretako hostozabalen basoetan, batez ere pagadietan. Perretxiko hau nahiko arrunta da.
JANGARRITASUNA: *Cortinarius* gehienak bezala, hau ere ez da jangarrien artean sartzen.
Mamia trinkoa eta grisaxka da eta tonu moreak ditu. Zapore geza eta kanfor usain txarra.

CORTINARIUS LARGUS

DESKRIBAPENA: espezie nahiko arrunta da, txapela ganbil edo laua eta ganbil du, neurri erdi edo handia, 4-12 zentimetroko diametrokoa, azala likatsu, leun eta gris urdin kolorekoa baina erditik hasiz arre kolorea hartuz, azkenean marroi edo larru kolorea hartuz, gehienetan ertzak lila argi kolorekoak.

HABITATA: ilraila erditik eta azaroaren erdi bitartean arrunta, hostogalkorrezko orbel artean, pagadietan bereziki eta noizik behinka amezti ohian sakonean, orbel gainean.
Maiz izadi handiak eta hosto gainean sorginkorrak eratzen ditu.
JANGARRITASUNA: jangarritzak hartua. Talde honetan gastronomiko kalitate oneko kortinario gehienak azaltzen dira eta bereziki ondoren deskribaturiko espeziea, Variecolor taldekoa hain zuzen.

Tu imprenta de confianza

C/ IRUÑA, 1 BIS, 2ª PL.- BILBAO

info@graficasrd.com 94 447 93 04 www.graficasrd.com



DONOSTIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN
www.donostia.eus

DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN

www.dss2016.eus